

ataria

2018-07-27
914. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

PLAZAK BATZEN GAITU ELAKO



IBARRAKO JAIK 2018 Ondo pasa!!



EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK



ETXERA!



EMAKUMEEN AURAKO
INDARKERIAK EZ



Ibarrako
Udala

Gozatu, baita gurekin ere!

Zaila izaten da askotan, maite duzun herria atzean utzi behar izatea. Hala ere, badira joa-neko bidai hori itzulera bihurtzea posible egi-ten duten une bereziak. Horiek, noski, herri-ko festak izaten dira. Horregatik aukeraten dituzte askok, pare bat edo

hiru egunez bada ere, data hauetan bisita-txo bat egitea. Zer izango ziren, bestela, he-rriko festak edo festa herrikoiak, bertako-rik gabe? Ez festa eta ez ezer!

Esaterako, bihartik aurrera, ez da horre-lakorik gertatuko eskualdeko txoko asko-tan. Badatoz, heldu dira abuztuko festak! Uztaila amaierakoak ere noski! Horrekin batera, heldu da gure udako egitaraua. Au-rretik, ehunka ekitaldi desberdin, eta mila-ka eta milaka klik egin beharra, une bakan horiek harrapatu asmoz. Zuen gozamina, gure ofizio bihurtuko da eta aurrerantzean.

Guk, ordea, izango dugu festen usaina dastatzeko asti-rik ere. Hori bai, usain ona izan dadila; goxoa. Gizartean, festez aparteko eragin negatiborik sor dezakeen berririk gabekoa. Beraz, ondo pasa, inor edo ezer gaizki sentiarazi

edo gaiztotu gabe, inolako sustantzia eta ideia txarren menpe gehiegi erori gabe, pasa gabe. Jai herrikoiak nahi dituzue, baita nik ere, herrikoiak eta parekideak.

Iaz, aurren ere elkar ikusiko genuelakoan nengoen, eta hala izan da. Beraz, festa bakoitzean zer egin daitekeen ikusteko aukera ederra da honakoa. Gure egunerokoa hartu eta egun bakoitza nola bete dezakegun ikusteko ezin hobe. Guz-tietan, jarduera ugari daude, eta gehienak, herriz herri errepikatzen dira, gainera. Aurren, ordea, berrikuntzaz josita datoz jaiak. Ez da erraza izango nora eta zertara joan aukeratzea.

Eta zer izaten da festetan egin daitekeen gauzarik onenetakoa? Uneak birritan bizi-tzea. Horretarako egongo gara gu hor, pla-zaz plaza. Zuetako bakoitzak, subjektiboki bizitako uneak, beste ikuspuntu batetik ja-soko ditugu, begirada berri bat emanez; be-

randuago, sare sozialetan edo lagunartean erabiliko du-zen irudi hori eraikitzen. Zuei esker gara, eta zuek ere guri esker zarete. Ez ahaztu: Egiten duzuna garenez, abuz-tuan ere, hala izango gara.



**JOSU ARTUTXA
DORRONSORO**

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

Tolosaldeko gizarte eragileak



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizsketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ibai Luque

Testuak:
**Josu Artutxa
Dorronsoro**

ALTZOKO FESTAK



Eider Epelde, Altzoko San Inazio jaiak antolatzen aritu den kideetako bat. ATARIA

«ERRALDOIAREN ERREPLIKA BATEKIN ZERBAIT EGINGO DA; EZIN DUT EZER GEHIAGO ESAN»

EIDER EPELDE

ALTZOKO UDALEKO ZINEGOTZIA

Herri txikia da Altzo, baina San Inazio festetarako inplikazio handikoa. Aurten, larunbatean hasi eta asteartera bitarte luzatuko dira; erraldoien topaketa da nobedade handiena.

Inaxio, gure patroia handia... kantatu ohi dute bertan uztaileko azken egunean. Abuztuko festen maratoni luzearen aurretik, Altzokoak dira lehenak. Horiek antolatzen, festa batzorde bat

aritzen da, horietatik ia denak, gainera, gazteak izaten dira. Egiten duten lana «ikaragarria» dela aitortu du Eider Epelde (Ibarra, 1979) zinegotziak. Duela hamabi urte jarri zen bertan bi-

zitzen, baina haurra zela joan zen lehen aldiz jaietara. Hortaz, bertako edonork bezain ondo ezagutzen ditu.

Hain bereziak al dira San Inazio festak altzotarrentzat?

Bertakoentzat urteko egunik garrantzitsuenak dira. Intentsitate handiko lau egun izaten dira, eta herri guztiak parte hartzen du. Urte guztian zehar hainbeste inguratzen ez diren baserri-tarrek ere gerturatzeko tarte bat hartzen dute. Hala ere, giro ederrean igarotzen ditugu jaiak, eta saiatzen gara herriarrentzat ordu guztiak beteta izaten. Beraz, bai hemengoak, baita kanpokoak ere animatzen ditugu bertako festetan ondo pasatzera.

Beti gainera festen izen bera daraman egunaren inguruan antolatzen dira, ezta?

Hala da, bai. Iaz, bost egunetara luzatu genuen egitaraua, baina aurten, ordea, ez dugu begi onez ikusi hori, eta argi genuen lau egunetako egitaraua itzuli behar genuela, gure aldetik lan handiagorik ere ezin dugulako egin. Pena handiz, baina ostriralean hasi ordez, larunbatean hasiko dira festak. Gainera, obrak zirela eta, taberna ere itxita egon zen iaz, eta herri txikia garenaz, antolakuntzari dagokionez, eragin handia izan zuen horrek.

Igandea berezia izango da, eta omenaldiren bat egingo duzue.

Jada bi urte daramatzagu erraldoiaren kontuarekin. Lehenik, txotxongilo emanaldiaren ideia plazaratu zen, eta gerora heldu zen filmarena. Aurten, 200 urte bete dira jaio zela eta festetan zerbait berezia egin nahi izan da. Hortaz, erraldoien topaketa bat antolatzen hasi ginen, omenaldi modura. Inaki Moyuak lagundu digu guzti ho-

 tolosaldeko
ataria

 ataria
irratia

 ataria
internet

 ataria
prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

rretan, eta berari esker lotu ditugu Txantreako eta Bergarako konpartsak.

Baina kalejira soil batean geratuko da dena?

Eskolatik abiatuko da desfilea, eta amaieran, zerbait egitea pentsatuta dago. Moyuak berak ere, erreplika bat egin zuen, eta agian horrekin zerbait egitea erabakitzen dugu, baina oraingoz ezin dut ezer gehiago esan.

San Inazio eguna, berezia Gipuzkoan, baina baita Altzon ere.

Herriko patroia eguna da, eta familiak eta lagunak biltzeko aitzakiarik onena. Etxe guztietan bazkariak egin dira. Gainera, egitarau aldetik ere

garrantzitsua da guretzat, eta horregatik egoten da hain bete urtero.

Villabonan, adibidez, festak ospatzen dituzte egun horietan. Nabaritzen duzue hori?

Nik umetatik bizi izan ditut Altzoko festak, aitona-amonak bertakoak zirelako. Duela hogeita bost urte, gainera, oso famatuak ziren San Inazio jaiak. Herri txikia izanik, ordean, izan ditu zenbait urte bisitarien aldetik beherakada nabarmena jasan dituenak. Hala ere, azken hiruzpalau urteetan kanpotik jende gehiago etortzen dela nabaritzen dugu. Baina, guk horri ez diogu begiratu nahi. Lehenengo, herrita-

rentzat antolatu behar dira festak, beraiek gustuko dituzten ekintzeekin. Gero, guk ondo pasaz gero, orduan etorriko da jendea kanpotik, eguraldiak lagunduta, noski!

Eta erraldoiaren eragina bisitetan nabaritzea espero duzue?

Orain arte bezala izan bada, areagotzea espero da bai. Aste Santuan, lehenengo, eta asteburuetan gero jende ugari etorri da hona, ibilaldia egitera eta erraldoiaren interpretazio zentroa ikustera. Oraingoz, ez dugu udako bisiten daturik, baina aurreikusita genuen bisita ugari jasotzea.



ALTZOKO FESTAK

UZTAILAK 28, LARUNBATA

11:30. Txupinazoa, jaietxerak emateko.

Ondoren. Artea dantza taldeko haurren emanaldia.

12:30. Paella prestaketa.

Ondoren. Bazkaria.

Arratsaldean. Matraka elektrotxaranga.

Ondoren. Bertso trikipoteoa: Peñagarikano eta Artola.

21:00. Sagardo dastaketa; afaria norberaren esku.

23:30. Kontzertuak: Starlus, Koltxoi eta DJ Dantzaleku.

UZTAILAK 29, IGANDEA

11:00. Erretiratuen hamaiketakoa.

11:30. Euskal Herriko IX. Segaligako azken proba, Santilazpiko belardian (plazan). Emakumezko, gizonezko eta

gaztetxoaren arteko lehia. Antolatzailea:

Almintza Segaligakoa.

15:30. Plater hausketa.

12:30. Altzoko Handiaren jaiotzaren 200. urtemuga. Erraldoien topaketa: Txantrea eta Bergarako konpartsen kalejira, herriko eskolatik abiatuta.

21:00. Zahagi ardoa.

22:30. Artea eta Alurr dantza taldeen emanaldia, frontoian.

00:00. Gabenara musika taldea.

UZTAILAK 30, ASTELEHENA

11:00. Haur jolasak.

13:00. Haurren hamaiketakoa.

15:30. Mus txapelketa, Elordi elkartearen. Izen-ematea: 15:00etan.

16:00. Eriz magoa.

18:00. XXII. Frontoi Zaharreko Pilota Txapelketako finalak.

20:30. Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa.

21:00. Herri afaria, zikiri jatea.

00:00. San Inazio eresia.

Ondoren. Oxabi taldearekin dantzaldia.

Goizaldean. Puntu erronda.

UZTAILAK 31, ASTEARTEA

SAN INAZIO EGUNA

09:00. Goiz eresia.

10:00. Meza nagusia.

12:30. Txakolin dastaketa.

Tartean. Toka txapelketa.

18:00. Kukai dantza konpainiaren eskutik, *Gelajauziak* ikuskizuna.

Ondoren. Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

22:30. Bertso jaialdia: Sustrai Colina, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze eta Haritz Mujika. Gai jartzailea: Manu Olano.

00:00. Dantzaldia, Joselu Anaiak taldearekin.

LARRAULGO FESTAK



Aurten ere, herritarrek osatutako txarangak girotuko du herria, suziria jaurti eta Pello Joxepe jaitsi ondoren, festei hasiera emateko. ASIER IMAZ

SANTU BATEKIN NAHIKOA EZ ETA BI OSPATU BEHAR

Urtero moduan, aurtengo Larraulgo jai batzordeak bi egitarau desberdin prestatu ditu. Lehena, herriko patroia ren festetarako, ekitaldi andanaz josia. Hilaren 24an, ordea, San Bartolome eguna ere ospatuko dute.

Herriko festetako egitaraua, izan formatu edota eduki aldetik, urtetik urtera oso gutxi aldatu ohi den zerbait izaten da. Larraularen ere antzeko pentsamendua izaten dute. Hori dela eta, aurten ere, San Esteban jaiez gain, San Bartolome eguna ere ospatuko dute bertan. Esaterako, datorren ostegunean botako dute aurtengo txupinazoa, eta horrekin batera jaitsiko da Pello Joxepe. Bezperan, ordea, plazan, zinema emanaldi batez gozatzeko aukera izango da. Ostegunean, bestetik, gazteek etxetik kanpo lo egiteko aukera izango dute. Izan ere, kanpaldi bat antolatu dute. Iluntzean hasiko dira muntaiarekin eta afariaren ostean txango bat egiteko aukera izango dute, herri inguruan.

Biharamunean, gazteen gosariak irekiko du herriko patroia ren eguna. Urteko egun garrantzitsuenak, jada tradizio bihurtu diren meza, hamaiketako eta herri kirol saioarekin jarraituko du. Iluntzean, tragoak hartzeko ez da aitzakiarik faltako, eta tartean, kantuan aritzeko aukera egongo da, Usarrabi taldearen laguntzaz. Iluntzeko kontzertuaren eta DJ-aren aurretik, herri afaria egingo dute.

Larunbata, berriz, haurrentzat antolatutako eguna izango da, eta San Esteban eguneko ajeari aurre egiten lehenak etxeko txikienak izango dira. Altxorraren bila ariko dira goizean, eta aparrez blaitu ahal izango dira eguerdian, guztiek batera bazkaldu aurretik. Arratsaldean, jolasten ariko diren bitartean, gaztetxoak eta helduak sar-

tuko dira festa giroan, mus txapelketa herrikoia jokatzeko baita. Iluntzean, Urbeltz plaza izango da festaren bilgunea, bertan barrikotea egingo dute eta. Goizaldeko ordu txikietan, berriz, urtero festetan bizi ohi den unerik berezietako baten txanda helduko da: baratxuri zopa.

Baratxuriak ahoan utzitako hatsa nolabait ere goxatzeko, sagardoa dastatzeko aukera egongo da festen azken egunean. Trikitilariak alaituta, Aburuz, Zabala, Gaztañaga, Artola eta Sarasola sagardotegiekin plazaratutako zuak dastatu ahal izango dira. Tradizioari jarraituz, egun horretan toka txapelketa eta paella herrikoia ere egingo dituzte. Arratsaldean, berriz, punta-puntako bertsolarien saioa entzun ahal izango dute bertara hurbiltzen direnek. Gai-jartzaile lanetan, ordea, ez da ohiko inor ariko, baizik eta herriko bertso taldeak emango dizkiete pistak lau adituei. Gainera, eguraldiaren arabera, lekua ere aldatu daiteke, eta plazan edo elizan izango da emanaldia. Eguna, eta festak ere, behar bezala amaitzeko, Izer eta Alabier trikitilarien erromeriaz gozatu, eta herri askotan gertatzen den bezala, dantzari egin ahaliko dute herritarrek.

Xumea bezain garrantzitsua izaten dena, San Esteban jaiez gain, San Bartolome eguna izan ohi da. Ibarran eta Amezketan bezala, hemen ere ospatzen dituzte, eta jarduera pila antolatu gabe ere egitarau oparoa osatu dute.



LARRAULGO FESTAK

ABUZTUAK 1, ASTEAZKENA

22:00. Zinema emankizuna plazan.

ABUZTUAK 2, OTEGUNA

19:30. Txupinazoa eta Pello Joxeperen jaitsiera, festei hasiera emateko.

Ondoren. Buruhandiak eta Gurdi soinu herriko txaranga.

20:30. Gazte kanpaldia: muntaketa lanak.

21:30. Gazte afaria.

Ondoren. Larraulizarpean txangoa.

ABUZTUAK 3, OSTIRALA

SAN ESTEBANEGUNA

10:00. Gazteen gosaria.

11:00. Meza nagusia.

11:30. Hamaiketako herrikoia.

18:00. Herri kirolak.

21:00. Zahagi ardoa.

20:00. Kantu poteoa Usarrabi taldearekin.

Ondoren. Herri afaria.

23:00. Balerdi Balerdi musika taldea.

Ondoren. DJ Balber.

ABUZTUAK 4, LARUNBATA

11:00. Altxorraren bila jolasa.

12:00. Apar festa.

14:00. Haurren bazkaria.

15:00. Puzgarriak.

16:30. Mus txapelketa.

20:30. Barrikote herrikoia Urbeltz plazan.

23:00. DJ Urki.

03:00. Baratzuri zopa.

ABUZTUAK 5, IGANDEA

12:30. Sagardo dastaketa trikitilariak alaituta.

13:30. Toka txapelketa.

15:00. Paella herrikoia.

18:00. Bertso jaialdia: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran eta Haritz Mujika. Gai jartzailea: Larraulgo bertso taldea.

Ondoren. Izer eta Alabier trikitilariak.

SAN BARTOLOMEEGUNA

ABUZTUAK 24, OSTIRALA

11:00. Meza nagusia.

12:00. Hamaiketako herrikoia.

17:30. Luis Eraso egurra lantzen.

Amaieran, piezak zozkatuko dira.

19:00. Sardina jatea plazan.

19:30. Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak; gauean ere bai.



IKAZTEGIETAKO FESTAK



Miren Mendizabal, Ikaztegieta jai batzordeko kidea, udaletxeko balkoian. JOSU ARTUTXA

«HERRI TXIKIETAKO FESTETAN DENOK EGON BEHAR IZATEN DUGU TOKI GUZTIETAN»

MIREN MENDIZABAL

ZINEGOTZIA ETA FESTA BATZORDEKO KIDEA

Ikaztegieta jaiak jakitun dira festak antolatzea ez dela gauza samurra. Beraiek, ordea, tradizioari eusten diote, eta aurten ere hiru egunetarako egitaraua osatu dute, berrikuntzekin.

Festa batzordeko kide izanik, gaztetatik darama Ikaztegieta San Lorentzo jaiak antolatzen Miren Mendizabalek (Ikaztegieta, 1984). Orain, berriz, udaletxeko zinegotzi izanik buru-belarri dabil, boluntario modura, jaietako kontuak lotzen. Aurten ere sanlorentzoetaz gozatu nahi du, nahiz eta egun handirako sartu dituzten nobedadeekin zaila izango zaion. Horien inguruan hitz egin dugu berarekin.

Festetako kontuetan lanean aritzeak, gozatzeko astirik ematen al du?

Bai. Azkenean, ardurak banatuta egoten dira, eta batzordeko kide bakoitzak bere egin beharra izaten du. Horrela, errazagoa izaten da norberak tarte bat izatea jaietz gozatzeko. Egia da, ordea, beti izaten duzula kezka puntu bat, ea guztia ondo aterako den ala ez jakin nahi hori, eta ea eguraldiak

ere lagunduko duenaren zalantza. Hortaz, gozatu gozatu, berez, ondoko herrietako festetan gozatzen dugu, baina Kuadrilla Eguna, esaterako, berezia izaten da hemen.

Kuadrilla Eguna gain, beste bi egun hilaren 10aren inguruan.

Herriko patrioiaren eguna nola egokitzten den ikusten dugu lehenik, eta horren arabera antolatzen gara. Aurten, zortea izan dugu asteburua gertu dugula, eta inguru horretan kokatzen saiatzen gara, lana dela eta, jende gehiago biltzeko asmoz. Horrela, aurten, ostegunean hasi eta larunbatean amaituko dira. Beharrezkoa zen hiru egunetara moldatzea; herri txikietan, denok egon behar dugu toki guztietan, eta azkenean, nekea ere nabaritzen da. Hiru egunak ondo antolatuz gero, nahikoa eta soberan.

San Lorentzo eguna, berrikuntza ugarirekin dator, eta aldaketaren batekin ere, ezta?

Hala da. Hasieran, artan zuriketa erakustaldia kokatu genuen goizerako. Ama-alabak dira, eta artoei aleak kentzen dizkieten bitartean, kantu zaharrak abesten dituzte. Ikusgarria izaten da. Artikulu batean irakurri nuen beraien inguruko informazioa, eta oso erakargarria iruditu zitzaidan. Ikaztegieta, ordea, ezingo dute aritu. Azken urteetan, herriko musikarien kontzertuari eskaintzen zitzaion tarte hori, baina aurtan, musikari faltagatik, ezin izan dugu guztiz itxi. Hori zela eta, zerbait berria ekarri nahi genuen, baina arazo teknikoak medio, ez da gauzatu. Alabaina, udazkenean, Erretirodunen Eguna ospatzearekin batera bisitatuko gaituzte.

Bestetik, bertso-pilota mistoa.

Beti ekarri izan ditugu pilotariak, jaialdi bat eskaintzeko asmoz. Duela hiru urte, aldiz, Berdinbidean proiektuan sartu zen Ikaztegieta, eta urte hauean, gazteak parekidetasunarekin lotutako lanketa berezi bat egiten ari dira. Horren harira, aurtan jai parekideak antolatu nahi izan ditugu, eta horrekin batera etorri da bertso-pilota ekitaldia. Gazte taldeko batek ekarri zuen ideia, eta oso aukera ona zela ikusirik, onartua izan zen. Pilota partida arrunta izango da, bertsolariek aholku eta gomendioak emango dizkietelarik. **‘Festamentua’ dantza emanaldia egingo da behintzat.**

Hori bai. Tio Teronen semeak taldearen eskutik izango da. Pasa den urtean ekarri genituen lehen aldiz; zerbait berria izan zen, eta jendeak gustura ikusi zuen. Horrela, aurtan ere, beraiekin harremanetan jarri eta ea zerbait berria prestatzen ari ziren galdetu genien. Beraiek baiezkota eman zidaten, esku artean proiektu bat zutela, herri desberdinetako jaietan bistartzeko. Iazko arrakasta eta erantzuna ikusita, aurtan ere etorriko dira. Gainera, inguruko herrietan iazko emanaldia eskaintzen dabilta oraindik.

Gauean, herritarrak kantuan ikusi eta entzun ahal izango dira.

Hau ere berrikuntza bat da. Talde eraberritu bat da. Herritarrak biltzen hasi ziren, eta hilabeteen behin betiko kantur herrikoia entseatzeko geratu izan

dira. Festetan, gauean ariko dira, afa-riaren ondoren. Duela urte dezente egiten zela esaten zuten, baina zenbait urtez geldirik egon den ekintza bat izan da, eta aurten berreskuratu egin nahi izan da. Talde polita osatzen dute, eta bertako edonork parte hartu dezake, irekia baita.

Ariko diren ordutegia, orde, ez al da nahiko arraroa?

Egia da, horrelako ekintzak normalean bazkal ostean ohikoagoak direla. Hala ere, proposamena beraiegandik heldu zitzaigun, guk eguerdian egiteko planteatu genielako. Baina, beraien erabakia errespetatu dugu; gainera Ikaztegieta kantari izena duenez, herriari eskainitako jarduera da, eta herri afaria horretarako egokia ikusi genuen. Beraz, afal ostean kantuan ariko dira heritarren aurrean, eta nahi duenak ere parte hartu ahal izango du. Ondorioz, taldera jende gehiago animatzea, eta gerora ere, beraien izena egitarau gehiagotan ikustea dira helburu nagusiak.

Kuadrilla Eguna ere bizitzekoa izango da, ezta?

Noski! Berrikuntzarik gabe dator aurreten, baina herritarrentzat, urteko egunik bereziena izaten da, izan haur, gazte edota heldu. Guztiek dute lekua egun horretan. Ikaztegieta ugari biltzen gara, baita kanpoan bizi direnak ere. Lagun gehien biltzen garen eguna izaten da, aitzakia ederra izaten baita. Gainera, aurten, larunbatean egokitu da, eta horretan, zortea izan dugu. Aurreko urteetan, astean zehar egin behar izan dugunean, hutsuneak egon direla ohartu gara, jendea lanera joaten delako. Iaz sekulako arrakasta izan zuen, gazte zein heldu asko bilduz, eta ea kopuru horietara iristen garen.



Ez da inola ere onartuko jaiaz aske gozatzea eragozten duen ezer

Herriko festetan inolako jarrera sexistarik onartzen ez duten arren, eraso-en arriskua mantendu egiten dela eta, lantalde bat osatu dute eraso sexistaren aurkako protokoloa sortzeko: «Ez da inola ere onartuko jaiaz aske gozatzea eragozten duen ezer. Nahikoa da! Ez bortxaketarik, ez ukiturik, ez begirada edo komentario lizunik, ez jazarpenik...».

Eraso sexistarik bizi edo ikusten bada, txosnan egongo dira salaketa jasotzeko eta erantzuteko. Erasoren baten lekuko izanez gero salatzekeo deia egin dute taldetik: «Ez hartu bat-bateko erabakirik zure kabuz. Protokoloa horretarako egin dugu. Edozer dela ere, festetan edota ondorenean, *ikaztegietakogaztetaldia@gmail.com* helbidera idatz dezakezue».

IKAZTEGIETAKO FESTAK

ABUZTUAK 9, OSTEGUNA

UMEEN EGUNA

11:00. Txupinazoa eta dantza saioa.

12:00. Zinta lasterketa.

Ondoren. Jolasak.

13:30. Haurren bazkaria.

15:00–18:00. Puzgarriak.

Ondoren. Merienda.

19:15. Patata tortilla prestaketa.

Tartean. Toka txapelketa.

20:30. Elkarretaratzea.

21:00. Afaria.

23:30. TPR, Starlus eta Nikotina Music & Little Martin Selektah taldeak.

ABUZTUAK 10, OSTIRALA

SAN LORENTZO EGUNA

11:15. Meza.

Ondoren. Txakolin dastaketa.

17:30. Bertso-pilota mistoa: Mikel Olazabal-Maite Ruiz de Larramendi eta Andoni Egaña/Egoitz Amantegi-Patri Espinar eta Iratxe Ibarra.

19:30. Festamentua, Tio Teronen semeak taldearen emanaldi berria.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Ikaztegieta kantari.

00:00. Mirari, Aintzane eta Lutxurdio trikitilariekin erromeria.

Ondoren. Afterlontxa.

ABUZTUAK 11, LARUNBATA

KUADRILLEN EGUNA

11:30. Frontoi Txikiko Txapelketa: finala.

14:30. Kuadrillen bazkaria.

Ondoren. Mus txapelketa.

17:30. Poteoa. Eonian elektrotxaranga.

19:30. Kuadrillen arteko jolasak.

Ondoren. Kuadrillen arteko afaria.

23:30. Erromeria Oxabi taldearekin.

Ondoren. DJ Balda.



BERASTEGIKO FESTAK



Jose Luis Egaña eibartarra, azken urteetan, Berastegiko argazki zaharrak biltzen aritu da. J. A.

«HERRIAN SORTZEN ZEN IA GUZTIA IKUSI AHAL IZANGO DA SAN LORENTZO JAIETAN»

JOSE LUIS EGAÑA

BERASTEGIKO ARGAZKI ZAHARREN BILTZAILEA

Berastegiko argazki zaharrak biltzen aritu da Jose Luis Egaña eibartarra. Iaz kultur astean jarri zituen ikusgai, eta aurtengo festetan, erakusketa egingo da berriro, udaletxean.

Berastegin hamabi urte daramatza bizitzen, baina jaiotzez debabarrendarra da Jose Luis Egaña (1965, Eibar). Historiarako afizio «handia» duela ukaezina da, eta horri lotuta, berastegiar sentitzen dela adierazteko, bertako argazki zaharrak biltzen aritu da azken urteetan. Festetarako, zeresana emango duen erakusketa bat antolatatu du, eta udaletxean ikusgai egongo diren irudiekin, garai bateko Berastegi irudikatu ahal izango da. Horri buruz eta festen inguruan hitz egin du TOLOSALDEKO ATARIA-rekin.

Zer moduzkoak dira Berastegiko festak?

Eibarkoekin alderatuta oso ezberdina dira. San Lorentzo festek duten bereizgarritasuna, herritarrek herritarrentzat egindako festak direla da.

Hain justu, sanlorentzoetan, argazki zaharren erakusketa bat jarriko duzu. Nondik sortu zen ideia? Lehen aldiz, iaz ospatutako kultur astean egin genuen erakusketa udale-

txean bertan. Orduan, argazki zahar batzuk agertu ziren, eta bestelako batzuekin batera, guztiak bildu eta nonbait erakustea polita izan zitekeela pentsatu nuen. Horrela sortu zen ideia, eta oso ondo joan zenez, aurtengo festetan errepikatzea pentsatu dugu.

Nola izan zen argazki guzti horiek biltzeko prozesua?

Bada, lehenengo irudi horiek agertu ondoren, pixkanaka, etxex etxe eta baserriz baserri joan nintzen, bertan egon zitezkeenak ikusi eta balio zezaketenak biltzeko. Eskean aritu nintzen, eta jasotzen nindoan heinean, gehiago egon zitezkeela ikusten nuen. Gerora, erakusketa bat egiteko moduan nintzela konturatu nintzen. Horietako askok, ordea, lanketa bat eskatzen zuten: editatzea, tratatzea eta txukuntzea. Horrela, urrian, Berastegiko argazki zaharren erakusketa egin genuen. Aurtengo erakusketarako, gainera, argazki gehiago jaso ditut, eta orain 700 argazki inguru ditut.

Iaz, 200 argazki jarri zenituen. Aurtengo 500 gehiago egongo dira?

Ez, festetarako beste 200 argazki jarriko ditugu, orain arte ikusi gabekoak. Irudi gehiago jartzeko tokirik ez dagoenez, erakusketa berrituko dugu.

Eta nondik dator kizur argazki zaharrak biltzeko afizio edo ohitura?

Historia betidanik gustuko izan dudana zerbait da. Berastegiko aldizkaria egiten dugunean ere, artikuluren bat edo beste idatzi izan dut. Askotan ibili izan naiz bertako historiari buruzko informazioa eta argazkiak bilatzen.

Zer motatako argazkiak ikusi ahal izango dira festetan?

Denetik dago: familia argazkiak, lagunartekoak, festa girokoak, herri kirol saioetakoak edota ezkontzetakoak. Elizaren bueltan egiten diren ospakizunetan ateratakoak ere ikusi daitezke, esaterako, Korpus Eguneakoak. Asko ere ez dago, baina herrian sortzen zen ia guztia ikusi ahal izango da udaletxeko erakusketan. Duela ehun urte inguru ateratakoak dira gehienak. Garai haietan, etxe guztietan ez zuten argazki kamera izaten, eta zaila izan da argazki ugari jasotzea.

Eta beste 300 argazkiekin zer egingo den pentsatzen duzu?

Iazko arrakasta ikusita, aurtengo kultur asteko erakusketa ere, beste 200 irudi ikusteko aukera egongo da. Asko harrituta geratzen ziren garai bateko Berastegi ikustean. Batzuk, berriro irudi berdina jartzeko eskatzen zidaten, ikusi gabe zituztelako, baina ezinezkoa izango da; gainera, argazki batzuk ez daude egoera oso onean. Hala ere, badago argazki ia guztiekin, liburu bat osatzeko ideia; horrela, herritarrek, udaletxean ikusten ez dituztenak ikusteko aukera izango dute.

Agian, festa giroan zaila izango da jendea bertara erakartzea.

Ez pentsa! Festetako ekintza ia guztiak plazan egiten dira, eta udaletxea bertan dagoenez, jendeak ez du asko behar harko inguratzeko. Espero dut aurreko arrakasta hura errepikatzea.

Eta zuk zeuk San Lorentzo festez gozatzeko tarterik hartuko duzu?

Ez dut uste. Lan egitea egokituko zait egun horietan. Leitzan egiten dut lan, eta bertan ere data horietan izaten dira festak. Ondorioz, aspertzeko tarterik ere ez dut izango.

BERASTEGIKO FESTAK

ABUZTUAK 8, ASTEAZKENA

10:30. Haurren frontenis-txapelketako finalak.

12:00. Suziria, Jon Azpiroz pregoilariaren eskutik.

Jarraian. Buruhandiak eta txistulariak.

17:30. Herritarren arteko herri kirolak, eskola atarian.

Ondoren. Perku-poteoa, herriko batukada taldearen eskutik.

21:30. Herri afaria.

Segidan. Salontzotako kartel-lehiaketako eta leiho edo balkoi lehiaketako sari banaketak.

00:00. DJ Modesto.



ABUZTUAK 9, OSTEguna

UMEEN EGUNA

10:00. Goiz deia.

10:00-13:00. Puzgarriak eta jolasak eskola atarian.

14:00. Zinta-jolasa bizikletarekin.

16:00. Apar festa eskola atarian.

17:30. DJ Porru ikuskizuna haurrentzat.

19:00. Aiko taldearekin erromeria plazan.

Ondoren. Zahagi ardoa plazan.

22:30. Alurr dantza taldearen emanaldia, eskola atarian.

00:00. Tximeleta erromeri taldea.

ABUZTUAK 10, OSTIRALA

SAN LORENTZO EGUNA

09:00. Goiz deia.

09:30. Meza San Lorentzo basilikan.

09:45. Mountain bike igoera herrikoia.

11:15. Alkate soinuua udaletxetik elizara.

11:30. Meza nagusia San Martin parrokian, *Perosiren obrakantatua* eskainiko du Lagunak abeslari koruak.

12:30. Pilota partidak.

4 t'erdian: Julen Garaiburu / Martin Intxaurrondo.

Binaka: Labaka-Garmendia/

Maiz-Telletxea.

18:00. Herri kirolak plazan. Aizkolariak: Iker Vicente eta Joseba Otaegi.

Harri-jasotzaileak: Aimar Irigoien eta Mikel Lopetegi.

Ondoren. San Juan dantzak eta helduen soka dantza.

Segidan. Zahagi ardoa plazan.

22:30. Iñigo Gorostazu, Iker Zubeldia, Unai Agirre, Maialen Lujanbio eta Agin Laburu. Gai jartzaileak: Amaia Agirre.

00:00. Gabezin erromeri taldea.

ABUZTUAK 11, LARUNBATA

KUADRILLEN EGUNA

10:00. Goiz deia.

11:00. Patata tortilla txapelketa, plazan.

Bitartean. Arno abereak haurrentzat.

Segidan. Tortilla dastaketa, txakolinaz lagunduta.

12:00. Luis Erasoren motozerra erakustaldia, plazan.

14:00. Kuadrillen bazkaria, eskola atarian.

Egun guztian zehar. Jainekin txaranga.

17:00. Kuadrillen arteko jolasak.

Ondoren. Sagardo dastaketa, txorizo egosi eta gaztarekin.

Tartean. Joxe Mari Barriolak urdaiazpikoa moztuko du eta toka txapelketa herrikoia ospatuko da.

00:00. Nogen eta Laket musika taldeak.

ABUZTUAK 12, IGANDEA

10:00. Goiz deia.

11:30. Herriko aurrebenjamin, benjamin, alebin eta kadeteen arteko partidak.

18:00. Haurren dantza, txistu eta trikiti emanaldia eta haurren soka dantza.

19:30. Joselu Anaiak musika taldea.

20:30. Zahagi ardoa, aparkaleku azpiko lokalean.

22:30. Dantzerki emanaldia, herritarren eskutik.

Ondoren. Joselu Anaiak musika taldea.





GOURMET OKINDEGIA GOXOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA

ALBIZTURKO FESTAK

LAU FESTA EGUN, ETA BESTE BAT, ATSEDENERAKO

Albizturren, ederki dakite Andre Mari jaiez gozatzeko. Hauek luzatzeko, Ama Birjin egunaz eta Gazte Egunaz gain, aurreko asteburua ere aprobetxatuko dute aurten.



Albiztour txirindulari lasterketaren aurretik, kalejira izaten da, trikitilarien eskutik. ANE URKOLA

Albizturko festak, aurten goz behintzat, egun batez luzatu dituzte. Iaz, astearekin egokitu zen Ama Birjin eguna, eta aurten, herriko patroï nagusiaren eguna asteazkena izango denez, zertxobait moldatu dute egitaraua, batik bat, luzera aldetik: abuztuaren 13a, astelehena, deskantsatzeko erabiliko dute. Aurreko larunbatean, suziria lehertzearekin batera hasiko dira, eta igandean ere jarraituko du festa giroak. Azken urteetan izena hartzen joan den Albiztour txirindulari lasterketa, herri afaria, txistularien diana eta helduen pilota partidak ospatuko dira asteburuan.

Hala ere, egun handia hilaren 15ean ospatuko dute: Ama Birjin Eguna. Meza nagusiaz eta hamaiketakoaz gain, goizean, herriko gaztetxoaren arte-

ko pilota partidez gozatu ahal izango dute bertaratzeko diren guztiek. Arratsaldean ere, kirola izango da protagonista nagusia, herri kirol saioa eskainiko dutelako herriko plazan. Egun handiari, eta orokorrean, festei amaiera emateko, babarrun igoera egingo da, baina aurretik, puntako bertsularien lanak entzuteko aukera egongo da, 22:00etatik aurrera.

Festak, ordea, ez dira egun horietara soilik mugatuko, eta bezperan, gazteek hartuko dute protagonismoa, euren eguna ospatuko dutelako. Denetarikoko ekintzak antolatuta dituzte 14rako: triki-poteoa eta bazkaria eguerdian, karaokea eta jolasak arratsaldean eta tortilla txapelketa eta sagardo dastaketa iluntzean. Gauean, berriz, asteburuan bezala, erromerian oinak astindu ahal izango dituzte albizturdarrek.

ALBIZTURKO FESTAK

ABUZZUAK 11, LARUNBATA

18:00. Txupinazoa eta babarrun jaitsiera.

Ondoren. Kalejira eta VI. Albiztour bizikleta lasterketa.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Erromeria Ostolazaren taldearen eskutik.

ABUZZUAK 12, IGANDEA

09:00. Txistularien diana.

11:15. Meza nagusia eta toka herrikoia.

18:00. Helduen pilota partidak.

23:00. Erromeria Elizagoien ahizpen eskutik.

ABUZZUAK 14, ASTEARTEA

GAZTE EGUNA

11:30. Triki-poteoa.

14:00. Haurren eta gazteen bazkaria.

16:00. Karaokea eta gazte jolasak.

20:00. Salbea.

20:00. Tortilla txapelketa eta sagardo dastaketa.

Ondoren. Erromeria Ansorregi eta Larrañagarekin.

ABUZZUAK 15, ASTEAZKENA

AMA BIRJIN EGUNA

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketako adinekoentzat.

12:30. Herriko gaztetxoaren arteko pilota partidak.

18:00. Herri kirol saioa.

22:00. Bertso saioa: Amets Arzallus, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi eta Jesus Mari Irazu. Gai-jartzailea: Alex Perurena.

Ondoren. Babarrun igoera, festei amaiera emateko.

ADUNAKO FESTAK

ADUNAKO JAIEK BADUTE XARMA BEREZI BAT

Abuztuaren 11tik 15era bitarte ospatuko dituzte Andre Mari festak, Adunan. Aurreko asteburur, ordea, jai giroan sartzeko, txekor jateko bazkaria egingo dute.



Kuadrillen Eguneako bazkaria izan ohi da Adunako herritarrek biltzen dituen ekitaldi nagusia. A. URKOLA

Adunan ez dute suziririk behar herritarrek festa giroan murgiltzeko. Hilaren 4an, larunbatean, pala topaketa egingo dute, baita 60 urtetik gorako bazkaria eta XV. Trans-Ernio pilota txapelketa ere. Biharamunean, berriz, beteagoa egongo da egitaraua. Herri krosean parte hartuko dute adunarrek, sagardo desberdinak dastatu aurretik. Txekor jateko bazkaria izango da ekitaldi nagusia, eta eguerdian jan gabe geratutako jakiekin afaria egingo dute gauean. Bi otorduen artean, toka txapelketa herrikoia ospatuko da, eta Ingo al deu? musika taldearekin erromeria izango da plazan.

Festen hasierarekin batera, oilasko biltzearen eguna helduko da. Abuztuaren 11n izango da, eta goizeko 06:00etan elkartuko dira biltzaileak. Goizean, puzgarrietan jolastu ahalko dute haurrek, eta eguerdian helduko da etxafuegoa botatzeko ordua. Ondoren, oilasko jokoa ospatuko da, eta II. Urrezko Ollaskua saria banatuko dute. Iaz, oilaskoei argazkia atera eta politena aukeratu zen plazan bertan. Aurtun, aldiz, baserrietako oilaskoak jasoko dira eta plazan ikusgai jarri, epaimahai batek onena aukera dezan. Arratsean, magiak eta jolasek dute hitzordua, haurren bazkariaren ondoren. Oilasko biltzaileek, berriz, eguerdian aukeratutako oilaskoekin, afaria

egingo dute iluntzean, Izer eta Alabier trikitilarekin dantzan hasi aurretik.

Igandean, berriz, oilaskoak base-rietan utzi, eta herritar bakoitzak bere kuadrillako blusa edo atorra jantziko du, lagunekin bildu eta bazkaria prestatu aurretik. Batzuek, bestalde, etxetik eramango dute jana eta edana. Arratsaldean, jolas egiteko aukera izango dute guztiek elkarrekin, eta egun osoan zehar, Elutxa txaranga ariko da kaleak musikaz alaitzen. Gauean, berriz, Mozorro Gaua ospatuko da, non herritarren euren ideia onenak plazaratu beharko dituzten, etxean aurkitutako elementuekin gorputza itxuraldatuz.

Abuztuaren 14an, asteartean, Erromeri Eguna ospatuko da. Hala ere, antolatu dituzten jarduerak, gutxi izango dute erromeri girotik. Herri-crossfit desapiyua izango da goizean. Herri-kiroletako probak oinarri hartuta, lehia izango da herritarren artean, aurrez adostutako joko eta ibilbideen arabera. Bazkaldu ondoren, berriz, Luis Eraso artisauak erakustaldia emango du egurra lantzen, eta beste-lako ikuskizun mota bat eskainiko dutenak, Falcons de Vilafranca Castellorsak eta Zizurkilgo erraldoi eta buruhandiak izango dira. Gauean, gainontzeko egunetan bezala, erromeriaz gozatzeko aukera izango da, Elizagoien ahizpen eskutik. Hala ere, ez da ahaztu behar, lehenago sabela betetzeko tarte hartuko dutela bertaratutakoek, barrikotean, eta euskal patrilla bezala izendatutako afarian.

Jaien amaiera, Adunan ere, herriko patroiairen festa egunarekin helduko da. Ama Birjin egunean, goiz-goizetik hasiko dira herria girotzen, dianarekin, herritarrek ohetik jaikitzen deituz. Beranduago, meza nagusiari eta haurren dantza emanaldiari emango zaio paso, nahiz eta eguerdiko axeridantza izango den ekitaldi nabarmena. Herriko ohiturak mantenduko dituzte, azken asteetan hainbat eta hainbat aldiz entseatutako emanaldia plazaratuz. Aurtun, neskei ere luzatu zieten gonbidapena, azken urteetan, polemika sortu duen gaia izan baita. Arratsaldean, dantzak Tio Teronen semeak taldearen eskutik jarraituko du, bertso saioaren eta Kupela taldearen erromeriaren aurretik.

ADUNAKO FESTAK

ABUZTUAK 4, LARUNBATA

11:00. Pala topaketa.

13:30. 60 urtetik gorakoen bazkaria.

17:00. XV. Trans-Ernio Pilota Txapelketa.

ABUZTUAK 5, IGANDEA

TXEKOR JATE EGUNA

11:00. Herri krosa.

12:00. Sagardo dastaketa.

14:00. Txekor jate bazkaria.

17:30. Toka txapelketa.

19:30. Ingo al deu? musika taldea.

21:00. Txekor jate afaria.

Ondoren. Ingo al deu? musika taldea.

ABUZTUAK 11, LARUNBATA

06:00. Oilasko bilketaren hasiera.

11:30-13:00. Puzgarriak eta jolasak.

13:00. Txupinazoa.

Ondoren. Oilasko jokoa eta II. Urrezko Ollaskua.

14:00. Umeen bazkaria.

15:00. Eriz magoa.

16:00-19:30. Puzgarriak eta jolasak.

21:00. Oilasko biltzaileen afaria.

23:00. Izer eta Alabier musika taldea.

ABUZTUAK 12, IGANDEA

KUADRILLEN EGUNA

14:00. Kuadrillen bazkaria.

Egunean zehar. Elutxa txaranga.

19:00. Kuadrillen arteko jolasak.

20:00. Ogitartekoak.

Ondoren. DJ Txispitas eta Mozorro Gauaren hasiera.

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

ERROMERIEGUNA

12:00. Herri-crossfit desapiyua.

17:00. Luis Eraso artisauaren erakustaldia.

18:00. Falcons de Vilafranca Castellersak eta Zizurkilgo erraldoi eta buruhandiak.

Ondoren. Pintxoak eta barrikotea, trikitiaz alaituta.

20:30. Afaria, euskal parrila.

22:30. Elizagoien ahizpak musika taldea.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

AMA BIRJINEGUNA

07:00. Diana.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Umeen dantza saioa.

12:30. Azeri dantza.

20:30. Tio Teronen semeak taldearen *Freshcool* kuskizuna..

Ondoren. Bertso saioa: Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Unai Agirre. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

Gauean. Kupela musika taldearekin erromeria.



BALIARRAINGO FESTAK



«BERTAN BIZI GARENON NAHIA, BERTAKO EK AHALIK ETA ONDOEN PASATZEA DA»

LEIRE ZUBELDIA

BALIARRAINGO FESTA BATZORDEKO KIDEA

Bai herria, baita festak ere, bereziak direla aitortzen du Leire Zubeldiak. Azken urteetan jende desberdina igaro da festen antolakuntzatik, eta aurten, berari egokitu zaio ardura hori.

Hiru egun izango dira, baina hiru egun horiek askotarako eman dezake. Hala ere, 72 ordu, gutxi diruditen arren, horietako bakoitza goitik behera antolatzea ez da gauza samurra. Hori dela eta, Leire Zubeldiak (Baliarrain, 1976), beste herritar askorekin batera, festak antolatzeko batzordea osatu du aurten. Datorren Ama Birjin eguneko egitarauan sartu dituzten bi berrikuntza nagusiri buruz aritu da.

‘Zoaz pake santuan’ antzerki obra nobedadeetako bat izango da.

Hala da. Ama Birjin egunean izango da gainera. Baziren urteak antzerkirik egiten ez zela, baina bazegoen gogo horrelako zerbait ikusteko. Herriko festetan egin nahi zen zerbait zenez, adin guztietako jendearentzat prestatutako zerbait eskaini nahi genuen. Horrela, aukera ezberdinak jarri ondoren, guk hori aukeratu genuen.

Zer ikusi ahal izango da bertan?

Elkarrekin ezkondata urte asko dara-

maten bikotea dira Mikel Laskurain eta Ane Gabarain. Hala ere, andrea aspertuta dago senarrarekin, eta bere helburua hura pozoitzea izango da, nahiz eta erraza ez izan.

Zer dela eta kokatu duzue herriko egun nagusian?

Urtero, Ama Birjin egunean, ekitaldi berezi bat egin izan da gauean. Ofizialki Donostiako Aste Nagusian inauguratuko bada ere, lehenago Baliarrainen eskainiko dute emanaldia. Beraz, jaietan zerbait berria izateaz gain, kultur mailan ere estreinakoa izango da.

Zer da Ama Birjin eguna baliarraindar batentzat?

Egun oso berezia izaten da, herritarrek euren lagunekin eta familiekin egoteko aprobetxatzen dutena. Kanpoan bizi diren baliarraindarrek ere hona gerturatzeko joera izaten dute. Guztiek, gainera, elkarrekin afaltzeko ohitura izaten dugu; hortaz, afal ostean jendea berriro plazan biltzeko aitzakia

ona da antzerkiarena. Ama Birjin egunaz aparte, Baliarraingo festak, orokorrean, xumeak bezain herrikoiak dira. Bertan bizitzen geratu garen herritarren nahia, bertakoei ahalik eta ondoen pasatzea da.

Bestalde, zer da Ibiur Harria?

Ibiur harria, iaz, Baliarraingo urtegiari aurkitu zuten harri bat da. Pasa den urteko festetan, plazara eraman zuten harria, eta bertaratu zirenek aukera izan zuten zenbat pisatzen zuen asmatzeko, porra baten bitartez.

Txapelketa bat ere jokatu da. Nondik sortu zen ideia?

Harri-jasotzaileekin eta federazioarekin hitz egin ondoren, baiezkoa jaso genuen. 7 harri-jasotzaile izango dira, eta 7 minuturen barruan, ahalik eta altxaldi gehien eman beharko dizkio kirolari bakoitzak. 158,4 kilo pisatzen dituen harriak forma berezia du, eta esaten dutenez, ez da oso erraza altxatzea.

BALIARRAINGO FESTAK

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

11:00. Txupinazoa.

Ondoren. Elortza eta Larrañaga.

11:30. Herri mailako pilota partidak.

Ondoren. Trikitxotx, Mikel Artola eta Oihana Iguaranekin.

14:00. Paella jatea.

Bazkal ostean. Mus txapelketa eta beste entretenimendu batzuk.

18:00. Haur jolasak.

21:00. Herri afaria.

Jarraian. DJ Momomo.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

AMA BIRJIN EGUNA

11:00. Meza nagusia.

11:45. LV. Txirrindulari Igoera, Jexux Nazabalen oroimenez.

18:00. Ibiur Harri-jasotze Txapelketa.

Ondoren. Bidebatez erromeri taldea.

23:00. Zoaz pake santuan antzerki a.

Jarraian. Bidebatez erromeri taldea.

ABUZTUAK 16, OSTEGUNA

11:00. Meza nagusia.

Segidan. Erretirodunen hamaiketakoa.

12:00. Herri mailako toka txapelketa eta maratona.

15:00. Puzgarriak frontolan.

19:00. Txapel jaurtiketa.

Ondoren. Obaneuke erromeri taldea.

20:00. Zahagi ardoa eta sagardoa.

Jarraian. Obaneuke erromeri taldea.

HERNIALDEKO FESTAK



Petritegi sagardotegikoek irabazi zuten pasa den urteko Sagardo Txapelketa. JOSU ARTUTXA

INOIZ BAINO LUZEAGOAK, ETA BETEAGOAK

Abuztuaren 12an lehertuko da suziria Hernialdeko plazan. Lau egunez, ekitaldi mordoa antolatu dute Andre Mari festetarako, Mozorro Gauda eta guzti.

Txupinazoarekin nahikoa ez eta suziriak ere botako dituzte Hernialdeko plazan, Andre Mari jaiei hasiera emateko. Aurten, aurreko asteburua aprobetxatu eta igandean izango da lehen eguna. Urteroko meza nagusiaz eta pilota partidez aparte, beste behin ere, sagardo txapelketa egingo da, hogeita hamazazpigarren aldiz, dastake-ta bat baino gehiago bihurtuko dena.

Herriarrek ez dute aspertzeko beta-rik izango, eta hurrengo egunean, gaztetxoenei egokituko zaie gozatzea. Izan ere, haurren egunarekin batera, puzgarriak eta haur parkea helduko dira herrira, horietan nahi adina jolas egin eta gozatzeko. Arratsaldean, berriz, jolasen ondoren, sukaldean nola moldatzen diren ikusi ahal izango da, eurek prestatutako patata tortillak dastatzeko aukera egongo baita, DJ-arekin, egunari agur esan aurretik.

Gaztetxoenen aje gozoak, ez du inolako trabarik izango, biharamunean, ez dutelako egitarauan ezer antolatu. Hala ere, iluntzean, zer ikusi eta zertaz gozatua izango da Hernialden. Herri afaria bertsoz goxatuko dute Zubeldia eta Larrañagak, eta afal ostea, berriz, Kupela taldeak girotuko du. Ospakizuna, ordea, ez da bere horretan geratuko, gau horretan, Mozorro Gauda ospatuko baita. Norberak nahi duena jantzi eta lotsak alde batera utzi beharko ditu gainontzeko herriarren aurrean.

Herriko egun handiarekin batera helduko da festa amaierako traka, eta hortaz, datorren urteko Andre Mari jaietarako atzera kontaketaren hasiera. Egun honetan, ikustekoak izango dira, arratsaldeko herri kirol saioa, parte hartzaile esanguratsuekin osatu dutena, eta gaueko dantzarien emanaldia, herriarrek herriarrentzat prestatutakoa izango delako.

HERNIALDEKO FESTAK

ABUZTUAK 12, IGANDEA

12:00. Txupinazoa eta suziriak, jaiei hasiera emateko.

Ordu berean. Meza nagusia.

Ondoren. XXVII. Sagardo Txapelketa: Barkaiztegi, Elutxeta, Gaztañaga, Izeta, Lizeaga, Otsua-enea, Petritegi, Rezola eta Sarasola. Txorizo pintxoak jateko aukera egongo da.

18:00. Pilota partidak.

21:00. Zahagi ardoa.

Ondoren. Tximeleta taldearekin erromeria.

ABUZTUAK 13, ASTELEHENA

UMEEN EGUNA

Goiz guztian zehar. Puzgarriak eta haur parkea.

12:00. Zezentxoak.

14:00. Umeen bazkaria.

Ondoren. Haur jolasak.

18:00. Patata tortilla lehiaketa (haurrak).

Ondoren. Zahagi ardoa.

Jarraian. DJ-a.

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

MOZORRO GAUA

21:00. Herri afaria, iker Zubeldia eta Angel Larrañaga bertsolariekin.

Ondoren. Kupela taldearekin erromeria.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

AMA BIRJIN EGUNA

12:00. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketako herriko elkarteak.

18:30. Herri kirolak: Axier Pellejero eta Jose Mari Olasagasti aizkolariak eta Inaxio Perurena harri-jasotzailea.

21:00. Zahagi ardoa.

22:30. Herriko dantzarien emanaldia.

Ondoren. Dantzaldia Gabezin taldearekin.

00:00. Festa amaierako traka.

ZIZURKIL GOIKO FESTAK



Xabier Pellejero, plazan, Txapel Eguneko saria jantzita eta iaizo jaietako zapiarekin. JOSU ARTUTXA

«SARI HAU JASO ONDOREN ERE, ZENBAIT URTEZ LANEAN JARRAITU BEHARKO DUT»

XABIER PELLEJERO

ZIZURKIL GOIKO FESTETAKO PREGOILARIA

Xabier Pellejeron arrazoi ugarirengatik jantzi zioten 25. Txapel Eguneko txapela. Aurten, urte luzez jai batzordean lanean aritu ondoren, festei hasiera ematea egokituko zaio.

Zizurkil Goian, Txapel Egunean sari nagusia jantzen duen herritarra izaten da herria irudikatzen egokiena. Hala da, izan ere, urtero txapela jantzen duen pertsona edo taldeak botatzen du suziria, festei hasiera emateko. Aurten, Xabier Pellejeron (Gaintza, 1953) egokitu zaio ardura. Ez dago bategi urduri, eta herritarrentzat bueltan, esker oneko hitzak besterik ez zaizkiola geratzen aitortu du.

Ba al dakizu zer esango duzun?

Ez dakit eskerrak emango dizkiedan hau gertatzea posible egin duten guztiei, edo ez. Baina, bai, pentsatzen dut horrelako zerbait esango dudala. Lehenago, ordea, txupinazora etortzera animatu nahi ditut zizurkildarrak.

Zuretzat zer suposatzen du honek?

Errekonozimendu moduko bat da, urteetan zehar egindako lanagatik; herri gintza mailan, boluntario modura zerbait egin dudaren seinale. Aur-

ten, festa batzordeko kideek txapela jantziko zidatela jakin nuenean, izugarrizko poza eman zidan. Ondorioz, suziria pizteko ilusio handia dut.

Txapel Egunean jaso zenuen saria, baita herritarren esker ona ere.

Beste munduko gauzarik ere ez dut egin. Egia da beti esku bat botatzen aritu izan naizela, urte askotan. Ez nuen espero, eta sorpresaz harrapatu ninduen. Orain bai, sari hau jaso ondoren ere, zenbait urtez lanean jarraitu beharko dut.

Udaletxean zinegotzi izandakoa zara zu. Nola aldatu dira herria eta festak ordutik hona?

Hori duela hogeitau urte baino gehiago izan zen. Herria, hobeto ezagutzeko aukera izan nuen, eta dudarik gabe, asko aldatu da. Orduan, asko hazi zen herria, eta orain, berriz, pixka bat gelditu da; erritmoa lasaia da.

Festak, berriz, ez dira asko aldatu.

Tradizioari eusten diote egitarauko ekintza ugari, besteak beste, oilasko biltzeak. Hala ere, honek ere garai berrietara egokitzea lortu du. Nahiko jarduera eztabaidagarria izaten da, baina, gaur egun, inongo liskarrik eragin gabe eramaten da aurrera. Azken urteetan, gainera, gazteak dira festetako pisua eramaten dutenak, eta ni bezalako boluntarioek, modu batera edo bestera laguntzen diegu. Bestalde, festetan inoiz aldatu ez den kontua, ordutegiarena da. Arrazoi desberdinegatik, jarduera ia denak beranduago hasten dira festetan. Hori bai ez dela garai berrietara egokituko!

Eta, zertaz gozatuko duzu jaietan?

Egunen batean, festetatik kanpo lanean aritzea egokituko zait agian. Bestela, normalean egiten ditudan lan txikiak egin beharko ditut. Adibidez, oilasko biltzean, lumatzea eta erretzea. Idi-proba ere ohiko ekintza izaten da, eta ofizioa dela eta ez dela, saltsan aritu beharko dut. Egunez gozatzeko parada izango dut, gaupasa luzerik egin gabe, deskuiduren bat edo beste izaten ez badugu. Azken finean, festak ospatzen direnean, ordu asko igarotzen ditut etxetik kanpo.

Festak hasi aurretik kontuan izan beharreko zenbait xehetasun

Zizurkil Goiko festak, hilaren 14an, 14:00etan hasiko badira ere, goizean goiz egingo den oilasko biltzarekin batera sartuko dira festa giroan herritarrak. Ohiturak agindu bezala, baserri-tar jantziarekin joateko eskaera luzatzen du jai batzordeak. Horrez gain, egun bereko herri afarirako txartelak ohiko lekuetan daude salgai, hilaren 12ra bitarte.

Bestetik, azken egunean mus txapelketarako izen-ematearekin batera, 15 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak. Festei amaiera eman aurretik, Mozorro Gaua ospatuko dute, eta banakako zein taldekako mozorro onenak sarituko dituzte. Gaueko afarirako tiketak salgai daude hilaren 16ra bitarte.

ZIZURKIL GOIKO FESTAK

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

06:30. Oilasko biltzearen hasiera.

10:00. Mural margoketa plazan, haurrentzat.

14:00. Suziria, jaiei hasiera emateko, Txapel Eguneko Xabier Pellejero txapeldunaren eskutik.

Ondoren. Indarkeria matxistaren aurkako herri argazkia eta oilasko biltzaileen dantzaldia.

18:00. Bike Show Trial erakustaldia: Irene Caminos eta Javi Alonso.

20:30. Zizurkilgo argazki zaharren erakusketaren inaugurazioa, Iriarte kultur etxean.

22:30. Herri afaria plazan.

Ondoren. Iratzar musika taldea.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

AMA BIRJIN EGUNA

Egun guztian zehar. Zizurkilgo argazki zaharren erakusketa.

11:00. Meza nagusia.

Jarraian. Erretirodunen hamaiketakoa.

12:30. Txan magoa plazan.

17:30. XIV. Trikiti Txapelketa.

19:00. Falcons de Villafranca giza dorreen ikuskizuna.

23:00. Bertso saioa: Unai Mendizabal, Maialen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Miren Amuriza, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze. Gai jartzailea: Igotz Alkorta.

Ondoren. Obaneuke musika taldea.

ABUZTUAK 16, OSTEGUNA

AMA BIRJIN BIGARRENA

12:30. Herri kirol erakustaldia.

Aizkolariak: Unai Otaegi-Iker Vicente / Joseba Otaegi-Jon Irazu. **Harri-jasotzaileak:** Xabier Aranburu *Guzta* / Jon Unanue *Goenatxo III*.

17:30. Ziba topaketa frontoi irekian.

18:00. Idi probak plaza berrian.

18:30. Ping pong txapelketa.

Ondoren. Sagardo dastaketa, Izer eta Alabier trikitilariak alaiturik.

15:00. Zimiterioko XVI. pilota txapelketako finalak: *Malli* memoria. 3. eta 4. postua eta finalak.

Ondoren. Izer eta Alabier trikitilariekin erromeria.

ABUZTUAK 17, OSTIRALA

12:00. Haurrentzako jolasak.

18:00. Herritarren arteko herri kirol saioa: gazteak eta beteranoak.

Ondoren. Zizurkil eta Añorgako erraldoi eta buruhandien kalejira.

23:00. Zezen suzkoa.

23:30. Eñaut Elorrietaren kontzertua, Intxaur frontoian.

Ondoren. Fan&Go musika taldea.

ABUZTUAK 18, LARUNBATA

HAURREN EGUNA

11:45. Kroserako izen-ematea.

12:00. Krosa.

12:30. Buruhandiak.

Ondoren. Jolasak.

14:00. Bazkaria herriko haurrentzat.

15:30-19:30. Puzgarriak, kart pista eta jolasak.

16:00. XXIX. Mus Txapelketa zentroan.

18:30. Errebal taldearekin dantzaldi gidatua.

21:00. Oilasko afaria.

Ondoren. Trakets musika taldearekin gaupasa.



I
IRIARTE
JATETXEA

- Eguneko menua
- Karta
- Astebukaerako menua
- Haragia eta arraina parrillan

Pedro Mari Otaño plaza, 1 • ZIZURKIL • 943 692 537



Beibategi JATETXEA

Eguneko menua, menu bereziak, karta zabala, ospakizun eta enpresa bileretako menuak... jangela edo terrazan.

Giro eta plater goxoak!

Elbarrena sakabanatua, 8
 20159 Zizurkil • Erreserbak: 943 59 85 51



ORENDAINGO FESTAK

EROMENA, HARRIARI BUELTA EMAN ARTE

Azken urteetako formatu bera, eta antzeko edukia. Aurten ere, 15aren bueltan, Ama Birjinaren aitzakian, osatu dute festetako egitaraua. Ikaztegieta bezala, hemen ere, bertso-pilota izango da berrikuntza.

Iaz ez bezala, aurtengo Orendaingo festek nahikoa izango dute suziri bakarrarekin. Abuztuaren 14ean, arratsaldeko 18:00etan, botako dute etxafuegoa udaletxeko balkoitik. Egun berean, herri kirol saioaz eta elektrotxarangaren doinuez gozatzeko aukera izango da. Txarangaren musikak, gainera, gauean ere entzungai izango dira herriko kaleetan zehar. Alabaina, gaueko saiorako indarrak hartzeko, saiheski jatea izango da iluntzean.

Ajea, gozoa bezain berezia izatea espero dute orendaingarrek. Hilaren 15arekin batera helduko da eta herriko egun nagusia. Herritarrek herritarrentzat egindako festak izan ohi dira, eta Ama Birjin eguna ere antzekotsua izaten da. Goizean, jende asko bertaratu-

ko da herriko dantzariak ikustera, baita sagardo etxe ezberdinek plazaratutako edariekin zintzurra bustitzera ere. Arratsean, haurrentzako denetarikoa jarduerak izango dira, IV. Lokotx Biltze Txapelketa herrikoia aurretik. Gaueko 23:00etan, ordu arrotza dirudien arren, bertso-pilota jaialdi berriaz gozatzeko parada izango da. Pilotariak binaka jardungo dira, eta tanto bakoitzaren ondoren, bertsolariek laguntzaile lanak egingo dituzte, aholkuak kantu bidez emanez.

Txirindulari proba klasikoarekin hasiko dute biharamuna, eta jakiz betetako eguna izango da: babarrun zozketa, herri bazkaria, tortilla txapelketa... Jaiei amaiera emateko harriari buelta eman aurretik, eltxoek, erromeriaz gozatu ahal izango dute.



Iazko txirindulari igoeran, amaiera estua bezain ikusgarria izan zen. ITZEA URKIZU

Beharrezkoa da saiheski jaterako txartela erostea

Festa Batzordeak aurten berrikuntza bat egin du, eta saiheski jatera joan nahi duenak txartela erosi beharko du abuztuaren 5a baino lehen, Ostatu tabernan.

Helduek 10 euro ordaindu beharko dute, eta 12 urtetik azpikoentzat doan izango da otordua.

ORENDAINGO FESTAK

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

18:00. Txupinazoa.

Ondoren. Herri kirol saioa eta poteoa elektrotxarangarekin.

21:00. Saiheski jatea.

23:30. Hobaneuke elektrotxaranga goizaldera arte.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

AMA BIRJIN EGUNA

11:15. Meza.

Ondoren. Herriko dantzari eta trikitilariak.

Bitartean. Sagardo dastaketa.

16:30. Haur jolasak.

17:15. Haurrentzako ipuin kontaketa.

18:30. IV. Lokotx Biltzea.

21:00. Zahagi ardoa.

23:00. Bertso-pilota:
Zubiria-Goñi (Peñagarikano)/
Labaka-Telletxea (Iker Zubeldia)

Jarraian. Erromeria taldea.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

12:00. XXVI. Txirindulari Lasterketa.

Jarraian. Babarrun zozketa.

14:30. Herri bazkaria.

17:00. Toka txapelketa, puzgarriak eta 3x3 txapelketa.

19:30. Patata tortilla lehiaketa.

23:00. Larrian gozo musika taldea.

00:00. Harriari buelta emango diote eltxoek.

GAZTELUKO FESTAK

BERRITZAILEAK, ORIGINALAK ETA IKUSTEKOAK

Beste urte batez, Ama Birjin bezperan eta egunean bertan, Gazteluko festez gozatzeko aukera izango da. Ekitaldi sorta ederra osatu dute Andre Mari jaietarako.

Menu ederra prestatu dute 2018ko Gazteluko jaietarako. Azken urte-etako egitura bera mantenduko dute aurrean ere. Festak, Ama Birjin egunaren bezperan hasiko dira, suziria lehertzearekin batera. Hala ere, aurreko egunean, herri afaria egingo dute, jai giroan murgiltzen joateko. Etxeko txikienentzat prestatutako eguna izango da festetako lehenena. Txupinazoaren ostean, bertakoen dantza emanaldia ikusi eta puzgarrietan jolasteko aukera izango da. Jolasen artean, tirolina ere jarriko dute. Aisia amaitu ostean, bazkaltzeko bilduko dira haur eta gaztetxoak, eta arratsaldean apar festak bilduko ditu berriz. Iluntzean, herri afaria egingo dute frontoian, eta otordua amaitzerako, irrintzi lehiaketa herrikoia antolatuko dute, ea luzeena, ozenena eta entzutetsuena nork botatzen duen.

Herri guztietan gertatu ohi den bezala, azken egunerako indarrak gordezea beharrezkoa izaten da. Gazte-

lun, gainera, berezia izango da Ama Birjin eguna. Herriko festa nagusia izanik, mota guztietako ekitaldi ugari ospatuko dira. Goizez eta arratsaldean, kirolari egingo zaio tartea. Bazkal osteko saioa, ikustekoa izango da. Ikustekoak eta dastatzekoak ere, iluntzeko patata tortillak izango dira, Asier Gozategi eta Julen Alonsori entzun eta gero ospatuko baita lehiaketa. Festak, *Bakean dagoena bakean* utzi saioarekin amaituko dira.



Pasa den urteko haur jolasetan bizitako une dibertigarri bat. JOSU ARTUTXA

GAZTELUKO FESTAK

ABUZTUAK 13, ASTELEHENA

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Zine emanaldia, plazan.

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

12:00. Txupinazoa.

Ondoren. Herriko haurren dantza emanaldia, puzgarriak eta tirolina.

13:30. Haur eta gazteen bazkaria.

16:00. Apar festa eta txokolate jatea.

20:00. Herri afaria frontoian.

Segidan. Irrintzi lehiaketa herrikoia.

23:30. DJ Jotatxo eta gazte jolasak.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

AMA BIRJIN EGUNA

11:00. Meza nagusia eta hamaiketakoa.

12:00. Frontenis txapelketa azkarra.

13:00. Toka txapelketa.

18:00. Herri kirolak: Peio Kañameres, Julen Kañameres eta Donato Larretxea.

Tartean. Trontza apustu herrikoia.

19:00. Asier Gozategi eta Julen Alonsoren eskutik trikiti emanaldia.

20:00. IV. Patata Tortilla Txapelketa.

22:00. Bakarlariak: Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena.



Promozio
eta
eraikuntzak

OTEGUI ERAIKUNTZAK S.L. • C.I.F. B-20483053
Bizkai kalea, 2 behe • Tolosa
943 67 21 72 • 608 772 801 / otegi@otegieraikuntzak.com

BETI BEZALA, EZER ALDATZEKO BEHARRIK GABE

Berrikuntzaren bat edo beste sartuta, baina betiko estilo bera mantenduz datoz Goiazko Andre Mari jaiak. Abuztuaren 11n hasi eta 15era bitarte luzatuko dira.

1 4:00ak ez da suziria jaurtitze-ko ohiko ordua izaten. Goia-tzen, aldiz, normalean bazkal-tzeko ordua izaten den unean emango diete hasiera festei, suzirie-kin eta ezkilen hotsekin. Ondoren, karten urteroko zita helduko da: XVI. Mus Txapelketa herrikoia. Frontoian jokatu da eta sari ederrak lortu ahalko dira, lehen sailkatuek jasoko dituzten 500 euro eta txapeletatik hasita.

Hurrengo egunean, musika aldetik etorriko da aurtengo nobedade han-diena, I. Goiazko Trikiti Txapelketa. Astelehenean, hilak 13, berriz, haur jolasaz gozatzeko aukera egongo da, eta hurrengo eguneko plater nagusia sagardo dastaketa izango da. Bertan, Zabala, Zapiain, Aburuza, Bereziar-tua, Lizeaga, Petritegi eta Urdaira sa-gardoak dastatu ahalko dira. Egun be-ean, gaueko 22:30ean, gure artean ohikoak diren bi modalitate nahastu-ko dira herriko frontoian. Lau herrita-rrek, bertso pilotako finala jokatu-ko dute bi bikotetan banatuta, eta tanto eta tanto artean, jaialdia bertsoz alai-tua izango da.

Ezin da aipatu gabe utzi gauero egongo dela erromeriaz gozatu eta plazan dantzan aritzeko aukera, gai-nontzeko herri askotan bezala. Gauza bera gertatuko da, hilaren 15ean, Ama Birjin egunean. Hala ere, lehenago, ohiko meza nagusiaren eta erretiro-dunen hamaiketakoaren segidan, ki-rola izango da protagonista. Goizean, pilota partidak jokatu-ko dituzte herri-ko gaztetxoek; arratsaldean, berriz, ikustekoa izango da herri kirol saioko lehia eta sortuko duen pike sanoa.



Haur jolasen artean, kollara ahoan eramatearena izan ohi da erakargarrienetako bat. ANE URKOLA

GOIAZKO FESTAK

ABUZTUAK 11, LARUNBATA

14:00. Jaien hasiera suziri eta ezkilekin.

Ondoren. XVI. Mus Txapelketa. izen-
ematea: 15:30–16:00.

21:00. Herri afaria frontoian.

23:30. Itzeder eta Lidia trikitilariak.

ABUZTUAK 12, IGANDEA

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Herriko dantzariak.

Jarraian. Poteo herrikoia.

18:00. I. Goiazko Gazteen Trikiti
Txapelketa.

22:30. Irati eta Maialen trikitilariak.

ABUZTUAK 13, ASTELEHENA

17:00. Haur jolasak.

Ondoren. Txokolatea nahi
duenarentzat.

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

19:00. Sagardo dastaketa.

Pintxoak doan dastatzeko aukera
egongo da.

22:30. Bertso pilotako finala,
bertsolariek alaiturik.

Ondoren. Bide Batez musika taldea.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Helduentzat hamaiketakoia.

12:30. Herriko gaztetxoek pilota
partidak: Dorronsoro/Altuna;
Iraeta–Aramendi/Elola–Aranzadi.

19:00. Herri kirolak: Bidania,
Goiatzen aurka. Txikia eta Otaño
aizkolariak, Goenatxo II eta Guztu
harri-jasotzaileak eta herriko gazteak
trontzan, korrika eta lokotx biltzean.

22:30. Elizagoien ahizpak.

BIDANIKO FESTAK



Amasa eta Albizturko gazteen aurka desafioan ariko diren bidaniar gazteak. ATARIA

SAN BARTOLOME JAIK, GAZTEEN DESAFIOZ BLAI

Azken urteetan errezildarrekin izandako lehia sana, hiru herriren arteko desafio bilakatuko da aurten. Faborito ez izan arren, bidaniarrak prest daude. Hori, baina, ez da festetan ikusiko den lehia bakarra izango.

Aitor Agirretxe, Iosu Elola eta Iñaki Elola. Horiek izango dira Bidaniko herritarren ordezkariak herri desberdinen arteko desafioan. Iaz, Errezilgo festetan futbol partida bat jokatzea proposatu zieten, eta bidaniarrak bueltan, desafio bat egiteko ideia jarri zieten mahai gainean. Hain zuzen, desafioa lau kiroletan banatzen zen eta bi mutilek eta bi neskek osatutako taldeetan banatuta egin zuten: ergometroan, soka saltoan, bizikletan eta lasterka. «Aurten, asmo berarekin joan, eta ezezkoa jaso genuen. Iaz irabazi egin geniela eta, agian beldurtu egin dira, eta ez dira ausartzen».

Eskualdeko herri desberdinetara joan dira jendea biltzeko asmoz, baina talde mistoak osatzeko ez dute inor topatu. «Festetan gustuko izaten dugu talde mistoekin desafio bat egitea, bai-

na beti zailtasun handiak ematen dituen kontua izaten da». Inguruko herri askotan, garai berean, festak egiteak edota abuztu amaieran jendea oporretara joateak ere eragin handia du.

Azkenean, Amasako eta Albizturko gazteen onarpena jaso zuten, kontaktu desberdinen bitartez. «Amasarrak, gainera, segan ere egin nahi zuten, baina guk ezetz esan genien». Orduan, hiru herrien arteko lehia izango da, mutilek osatutako taldeena. San Bartolome festetan, plazan egingo den desfiorako, iazko probetako bat kenduko dute: soka saltoa. Hortaz, errelebo-kako proba izanik, ergometroan 2,5 kilometro, bizikletan 6 kilometro, eta korrika 2-3 kilometro inguru egin beharko dituzte. «Aldapa dezente daude herri inguruan, beraz, bizikletaz egin beharrekoa nahiko buelta gogorra da. Hala ere, oraindik ez dugu erabaki ki-

lometro kopurua, eta haiekin hitz eginda, guztiz itxiko dugu desafioa bera». Gehienez, 30 minutuko proba aurreikusten dute, luzeegia izatea ere ez delako komeni. Gainera, herri inguruan egingo da, «bertakoek gozatu ahal izateko».

Pronostikoei dagokienez, ez dute argi ikusten irabazleak izango diren ala ez. «Faborito nagusiak albizturtarrak dira; amasarrak ez dakigu nor- tzuak diren». Hala ere, bidaniarrak argi dute: «Ez gaude barkatzeko!». Esperimentiaz baliatuta, iaz errezildarren aurka lortutako garaipenari segida ematea izango da asmoa. Bestalde, gazteek alde negatibo bat ikusten diote probari: «Jaien azken egunean egitea izango da okerrrena, neke guztia gainean dugula».

Aurreko marka hobetzea

Nahiz eta desafioa mistoa ez izan, parekidetasunari bultzada bat emango diote gazteen arteko herri kirol saioan. «Festak antolatzen ditugun gazteen artean osatuko ditugu neska eta mutil- ez osatutako taldeak». Haietaz aparte, aizkolariak eta harri-jasotzaileak ikus- teko aukera egongo da.

«Egurra!», aipatzen dute, Ibarrako nesken aurka egin beharreko giza probaren atarian. Desafio hau, San Bartolome egunean izango da, hain justu. Garai batean, herrian bertan egin izan zen antzeko zerbait, herritarrez osatu- tako bi talderen artean. «2014an, esa- terako, herriko bi talde Ibarrako nes- ken aurka aritu ziren. Aurten, ordea, talde bat osatzeko ere nahiko lan izan dugu!». Baina, osatu dute, eta ibarta- rren aurka ariko dira, harriari tiraka, plaza gehien ea nork egiten dituen.

Helburua argia da: «Lehenengo, ira- baztea, eta gero, ahal bada, duela lau urte, bidaniarrak jarritako marka (60 plaza) hobetzea. Oso zaila izango da, ordea». Bidaniak sei lagunekoko taldea osatuko du, 600 kiloko harria mugitu ahal izateko; Ibarrak, berriz, zortzi la- gunen artean tira beharko du 550 kilo- ko harria. Bi probetarako, ezinbeste- koa da taldekideen pisua era batekoa edo bestekoa izatea. «Komenigarria izaten da desfiorako pisu gutxiko jen- dea bilatzea, eta giza probako, berriz, pisu handiagokoa. Hortaz, erdibideko zerbait bilatzea izaten da egokiena».

BIDANIKO FESTAK

ABUZTUAK 23, OSTEGUNA

15:00. Suziriak eta ezkilak.

Ondoren. Txikiteo herrikoia trikitilariak alaiturik.

17:00. Haur jolasak.

20:00. Salbea.

21:00. Herri afaria frontoian, Unai Mendizabal eta Oihana Iguaranek alaiturik.

Ondoren. Elizagaien ahizpak.

ABUZTUAK 24, OSTIRALA **SAN BARTOLOME EGUNA**

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Herriko dantzarien emanaldia eta helduentzako hamaiketako Kontzejun.

17:00. Herriko gazteen arteko pilota partidak eta frontenis txapelketako finalak.

20:00. Zahagi ardoa frontoian.

22:30. Giza proba: Bidaniako gazteak eta Ibarako neskak. Bidaniak 600 kiloko harria, eta Ibarak 550 kilokoa.

Ondoren. Dantzaldia, Fan&Go taldearekin.

ABUZTUAK 25, LARUNBATA **Egun guztian zehar.** Usakume tiraketa.

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Bola eta toka txapelketak.

Bitartean. Helduentzako hamaiketako Sayaz elkartean.

16:00. I. Mus Txapelketa, frontoian. Izen-ematea: 15:30etik aurrera.

19:00. Sagardo dastaketa.

22:30. Pilota partidak: Iñaki Elola-Garmendia/ Alberdi-Aizpuru. 4 t'erdian: Eneko Labaka/ Peru Labaka.

Ondoren. Gabezin musika taldea.

ABUZTUAK 26, IGANDEA

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Herriko trikitilarien trikiti jaialdia.

17:00. Desafioa: Albiztur, Amasa eta Bidaniako gazteen artean.

Ondoren. Herri kirol saio mistoa Bidaniako gazteen artean.

Tartean. Joseba Otaegi eta Jon Irazu aizkolariak eta Aimar Galarraga eta Imanol Ilarramendi harri-jasotzaileak.

22:30. Izer eta Alabier trikitilariak.



*Ondo pasa
festak!*
Kontzeju jatetxea
Bidania - Goiatz 20496

Erreserbetarako
943 68 10 03 • 676 22 20 97

IBARRAKO FESTAK

HERRIA ETA FESTAK MOREZ MARGOTUKO DITUZTE

Seguru asko, abuztuko festen artean, eskualdean entzutetsuenak dira, baita ikusmin handiena sortzen dutenak ere. Ibarako San Bartolome festak, abuztuaren 23tik 27ra bitarte ospatuko dira.



Piperrak, jateaz eta erretzeaz gain, mozzorro gisa ere erabiltzen dituzte ibartarrek. ITZEA URKIZU

5 egun. Urteroko formatu berdina, eta ekitaldi nagusiak, lekuz, orduz eta edukiz aldatzeko beharrik gabe. Beste urte batez, gainean ditugu Ibarra eta herriarekin batera, baita ingurua ere aztoratzen dituzten festak.

Aurtengo festetako suziria, Ibarako Merkatarri Elkarteko kideek piztuko dute, eta leherketa hotsa entzunda abiatuko dira kalejiran erraldoi eta buruhandien konpartsak, Bartola eta Bartolo buru dituztela. Eguna bera, ez da aparteko ekintza bereziekin osatuko, baina gauean, plazan egingo den elkartasun afarira jende asko gerturaztea espero dute. Baita hurrengo goizean ere. Plazan amaituko baita haur danborrada, eta bertan jarriko dituzte tomate eta piperrak, guztiek dastatu ahal izateko. Honek, San Bartolome eguna heldu dela ohartarazten du.

Egun honetako beste bi ekintza bereziak, helduen danborrada eta bertso saioa izaten dira.

Musika taldeen kontzertuak, plater berezia izaten dira jaien egitarauaren barruan. Egunez egun, hauek izango dira San Bartolome plazan, gauez ariko diren taldeak: Humus, Soziedad Alkoholika, Laket, Errukirik Gabe, Oztopo, Iratzar, Gabezin eta Zesuma. Urtero bezala, erromeria gailenduko da herritarren bilgune nagusian. Askotan esaten baita, Ibarakoa dela dantzan ikasten hasteko plazarik onena. Egia ote? Hala ere, fandango eta arin-arin doinuez gain, rock estiloko melodiak ere entzungo dira bertan.

Bestalde, bestelako erritmoa eskatzen duen musika gehiago ere entzun ahal izango da egun horietan, ordu eta leku lasaigoetan, hain zuzen. Besteak beste, Kupela taldea, Giro Arte dultzai-

nero taldea, DJ Andoni, herriko txistulari eta trikitilariak, DJ Jotatxo edota Bonberenea txaranga.

Musikaz aparte ordea, dantzak ere lekua izaten du festetan. Ezin da aipatu gabe utzi Alurr dantza taldeak, urtero eskaintzen duen emanaldia. Aurten, gainera, berrikuntzekin dator. Hasieran mantendu izan zuen formatura itzuliko da. Eli Nosellas zuzendaria azaldu duenez, «urte asko daramatragu ikuskizun berriak prestatzen, eta orduan, gertatzen zena zera zen: ikuskizun horretan parte hartzen ez zuten herritarrek ez dantzatzea». Hortaz, aurten, adin batetik aurrera, guztiek, euren herritarren aurrean, dantza egiteko aukera izango dute. Hilaren 26an izango da, 22:45ean. «Guztiek ilusio handia dute Emeterio Arrese parkean dantzatzeko, urtero biltzen den publiko zoragarriaren aurrean ari-zeko».

Eta kulturaz, gastronomiaz edota bestelakoez gain, kirola ere nabarmendu beharra dago San Bartolome jaietan, dantza taldeak emanaldia eskaintzen duen eguna, hain zuzen, Kirolaren Eguna izango delako. Goizez nahiz arratsalde, mota guztietako jarduerak antolatu dituzte, adin guztietako herritarrentzat.

Azken egunean, lagunartean bilduko dira ibartarrak, guztiek batera egingo dute poteoa, bazkaria eta gainontzeko egun osoan zehar ere elkarrekin ibiliko dira kuadrillak, kaleak musikak alaitzen dituen bitartean. Gauean, ordea, jaietako unerik tristeena helduko da: Piperra erretzea. Aurten, Mutil Zarrak kuadrillari egokitu zaio ardura edo ohore hori.

IBARRAKO FESTAK

ABUZTUAK 23, OSTEGUNA

11:30. XXX. San Bartolome bozeto lehiaketako eta III. diseinu lehiaketako sari-banaketa, San Bartolome plazan.

11:45. Haurren eta gaztetxoek kuadrillak plazan elkartuko dira.

12:00. Jaien hasiera: Suziri jaurtiketa Ibarako Merkatarien Elkartearen eskutik eta Bartola eta Bartoloren jaisiera kiroldegitik plazaraino.

Ondoren. Ibarako, Zizurkilgo eta Villabonako erraldoien eta buruhandien konpartsen topaketa.

Ondoren. Hamaiketako, Ibarako Merkatarien Elkartearen eskutik, San Bartolome plazan.

14:00. Haurren eta gaztetxoek bazkaria San Bartolome plazan, herriko gurasoen eskutik.

16:00. Haurrentzako jolasak Txiribitu Astialdi taldearen eskutik, San Bartolome plazan.

18:00. Ibarako, Zizurkilgo eta Villabonako erraldoien eta buruhandien konpartsen kalejira, herriko kaleetan zehar.

19:00. San Bartolome bezperako kanpai-jotzea eta salbea, San Bartolome elizan.

19:00. Poteo musikatua eta brindisa herrian zehar, plazatik abiatuta.

21:00. Elkartasun afaria, San Bartolome plazan.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

23:30. Humus eta Sociedad Alkoholika taldeen kontzertuak, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 24, OSTIRALA

SAN BARTOLOME EGUNA

09:00. Diana herriko txistularien eskutik.

10:30. Meza nagusia, San Bartolome elizan.

11:30. Haurren danborrada, Iraunkorrek txarangak alaiturik.

12:00. Piperrak eta tomateak, San Bartolome plazan, herriko baratzezainek, Zubelzu Piparrak etxeak, Ibarlur Piparra Kooperatibak eta Txumitxak eskainia eta zerbitzatua.

18:00. Kupela taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

18:00. Helduen danborradaren entsegua, Azkue auzoan.

19:00. Bertso saioa Emeterio Arrese parkean: Ibarako bertso eskolako ikasleak, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Aitor Sarriegi eta Unai Mendizabal.

20:00. Helduen danborrada Iraunkorrek txarangak alaituta.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

23:30. Musicos Unidos Siglo XXI S. Coop Mad.-en eskutik, Laket taldearen kontzertua, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 25, LARUNBATA

09:00. Diana Giroarte dultzaina taldearen eskutik.

11:30. Festa herrikoa, herriko kaleetan zehar, Hauspoa Kultur Elkartearen eskutik.

14:30. Txekor jatea, Emeterio Arrese parkean, Sendi-Ekintza elkartearen eskutik.

17:00. Haurrentzako paseoak zalgurdian, Asier Lopetegiren eskutik, San Bartolome plazan.

19:00. Soka dantza, San Bartolome plazan.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

22:45. DJ Andoni, Txumitxa atzealdeko plazan.

23:00. Errukirik gabe, Oztopo eta Iratzar taldeen kontzertuak, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 26, IGANDEA

KIROLAREN EGUNA

09:00. Diana herriko trikitilariekin.

10:00. 3x3 futbol txapelketa haurrentzat, Emeterio Arrese parkean Lauburu KE-ren eskutik.

11:00. Erretirodunentzako hamaiketako, Bizi-Nahi elkartean.

11:30. Toka eta bola txapelketa, Emeterio Arrese parkean Ibarako Kirol Elkartearen eskutik.

11:30. Haur eta gaztetxoentzat toka eta bola txapelketa (6-12 urtekoek heldu batekin bikoteka), Emeterio Arrese parkean Ibarako Kirol Elkartearen eskutik.

11:30. Xake gunea: Xake partiden erakustaldia, ikastaro txikia, eta xake erraldoia, Emeterio Arrese

parkean Ibarako Xake Elkartearen eskutik.

12:00. Pilota partidak Belabietan pilotalekuan, Sendi-Ekintza pilotalekuren eskutik.

16:00. Nerabeentzako futbol-bolak, San Bartolome plazan.

19:00. Auzoen arteko sokatira lehiaketa herrikoa, San Bartolome plazan, Ibarra Sokatira Taldearen eskutik.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

22:45. Alurr Dantza Taldearen emanaldia, Emeterio Arrese parkean.

23:45. DJ Andoni, erretiratuen elkartearen aurrealdeko plazan.

00:00. J. O. Ikuskizun Sistemak-en eskutik, Gabezin taldearen kontzertua, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 27, ASTELEHENA

KUADRILLENEGUNA

09:00. Diana Giroarte dultzaina taldearen eskutik.

11:45. Kuadrillak San Bartolome plazan elkartuko dira.

12:00. Kuadrilla berriari ongi etorria: Kuadrillen txupinazoa eta brindisa, San Bartolome plazan.

Ondoren. Kuadrillen kalejira Bonberenea txarangarekin eta Giroarte dultzaina taldearekin.

14:30. Kuadrillen bazkaria *Ze habil barrabil* eta *Isk&bila* kuadrillek antolatuta, Emeterio Arrese parkean.

17:00. DJ Jotatxo, Emeterio Arrese parkean.

19:00. Elektrotxarangarekin, kuadrillen kalejira herrian zehar.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

00:00. *Mutil Zarrak* kuadrillak piperra osasun-etxetik San Bartolome plazaraino eramango du eta, ondoren erre egingo du.

00:45. Musikari Euskal Herriko Musikiari elkartearen eskutik Zesuma taldearen kontzertua, San Bartolome plazan.

IRAILAK 2, IGANDEA

10:00. Gazteentzako txirrindulari lasterketa, XXXVII. San Bartolome saria, Ibarra KE-ren eskutik.

AMEZKETAKO FESTAK



Larrunarri frontoia festa koloretsua bihurtzen da Kuadrillen Eguneko bazkarian. JOSU ARTUTXA

FESTA NON, AMEZKETARRAK HAN

28

Nahiz eta eskualdeko gazte gehienek Ibarrara joateko ohitura duten, Amezketan ere ederki ospatzen dituzte San Bartolome festak. Aurten, abuztuaren 23tik 26ra bitarte elkartuko dira euliak, azken urteetako egitarau ia berarekin datozen jaietz gozatzeko.

Eskualdean festak ospatzeko eskarmentu handieneko herria kontsidera genezake Amezketa. Bidanian ere ospatzen dira San Bartolome festak, eta beraz, Ibarra baino herri txikiagoak diren zatiak, zaila izaten da konpetentzia hori mantentzea, batez ere, jendea erakartzerako orduan. Amezketan, ordea, euliek euren giro propioa sortzen dute. Festa sano bezain herrikoia izaten dira Sanbartolomeak, eta aurten, iaz ez bezala, lau egunetara murriztu behar izan dute egitaraua. Hala ere, herriko patroia eguna ostiralarekin batera egokitu denez, osteguna eta asteburua probestu nahi izan dituzte, jai oparoak osatu ahal izateko.

Gauzak horrela, festak hilaren 23an hasiko dira, ostegunez. Egun horretan, euliari ongi etorria egingo diote. Gainera, Haurren Eguna ospatzeko aprobetxatuko dute jaien hasiera. Hortaz, egun guztian zehar, puzgarrietan nahiz bestelako jolasetan gozatzeko tartea izango dute umeek nahiz

gaztetxoek, eguerdian, Zazpi-Iturri elkartearen indarrak berdindu aurretik eta ondoren. Gazteak eta helduak, al-diz, beranduago sartuko dira jai giroan, buruhandi eta txistularien kalejiraren ostean egingo baita euliaren jai-siera eta une berean botako dute txapligua. Ondoren, zahagi ardoa ospatuko da, eta udala arduratuko da ogia, ardoa, gazta eta kafea eramateaz.

Goizaldera arte, erromerian dantza egin ahal izango dute euliek, jaietako lehen bingoa ospatu baino lehen.

Ostirala, egun handia izango da amezketarrentzat. San Bartolome egunaz gain, Mozorro Eguna ospatuko dute, eta aurtengo ediziorako aukeratu duten gaia 80ko hamarkada da. Goizeko nahiz arratsaldeko egitarauak ez du aldaketarik izan aurreko



urtekoekin alderatuta. Aurtengo berrikuntza handiena emakumezkoen arteko pilota partiden jaialdia da. Aurtun, festetan ez da gizonezko pilotari profesionalen partidarik izango. Mozorro festari dagokionez, beharrezkoa izango da trapu eta osagarri egokiak aukeratzea, jantzi ederrenak saria izango baitu. 16 urtetik beherakoen artean, 75, 50 eta 25 euro banatuko dira, lehen hirurentzat. 17 urtetik gorakoe-tan, berriz, hiru onenek, 150, 100 eta 75 euroko sariak jasoko dituzte. Guzti honetaz gain, 24an, bertsolariak entzuteko aukera izango da, erromeriaren eta bingoaren txanda heldu aurretik.

Kuadrillen arteko giroak tinko eutsiko dio biharamuneko buruko minari. Jarduera askoko eguna prestatu gabe ere, lagunarteak sekulako giroa sortzen duenez, bazkaritik hasi eta Kupela taldearen dantzaldira bitarte, hamaika irri eta algara egiteko ez dute aitzakiarik faltako, batez ere, joku-poteoko ikusgarritasunari esker.

Jaietako azken egunak, ia beti izaten dira tristeak, baita eulientzat ere. Amezketan, gainera, eulia hil egingo dute, baina aurretik, ez dira ohiko ekitaldiak faltako; bateko herri kirolak, besteko patata tortilla txapelketa, eta herriko gaztetxoaren musika eta dantza emanaldia. Azken honetan, Be Jon-daizula taldeaz gain, Iban Gurrutxaga, Kontxu Altuna eta Ixoneren ikasleak arituko dira. Eguraldi txarragatik, Altuna anaiak frontoian izan daiteke kontzertua. Azkenik, tradizioari jarraituz, azken bingoa ospatu aurretik, txekorraren zozketa egingo dute, Ake-lok guraso elkartearen alde.



AMEZKETAKO FESTAK

ABUZTUAK 23, OSTEGUNA

HAURRENEGUNA

11:00–13:00. Puzgarriak eta jolasak eskolatan.

Ondoren. Haurren bazkaria Zazpi-Iturri elkartean.

15:00–18:00. Puzgarriak eta jolasak eskolatan.

Ondoren. Merienda.

19:00. Kalejira, buruhandi eta txistulariekin.

20:30. Euliaren jaitsiera eta agurra.

21:00. Zahagi ardora.

23:00. Izer eta Alabier eta Ansorregi eta Larrañagarekin erromeria goizaldera arte.

Atsedendian. Bingoa, plazan.

ABUZTUAK 24, OSTIRALA

SAN BARTOLOME EGUNA

ETA MOZORRO EGUNA

10:00. Diana, txistulariekin.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Herri kirolak plazan, herriko haur eta gaztetxoaren eskutik.

13:00. Txakolin dastaketa, plazan. Jatekoa, norberak berea.

16:00. Nesken arteko pilota partidak Larrunarri pilotalekuan:

Ainhua Urien–Maite Tolosa eta Ainitze Labaien–Ane Arteaga; Ohiana Orbegozo–Leire Etxaniz eta Nagore Aramendia–Leire Espinar.

20:00. Mozorroaren sariaketa plazan.

22:30. Bertso saioa Altuna Anaiak frontoian: Maialen Lujanbio, Bixente Gorostidi, Anjel Mari Peñagarikano, Aimar Karrika, Unai Agirre eta Unai Mendizabal.

Gai-jartzailea: Imanol Artola *felix*.

23:30. Iratzar taldea goizaldera arte.

Atsedendian. Bingoa.

ABUZTUAK 25, LARUNBATA

KUADRILLENEGUNA

10:00. XVII. Pilota Txapelketa

Herrikoiairen finalak, frontoi zaharrean.

Ondoren. Poteoa.

14:30. Kuadrillen bazkaria, Larrunarri pilotalekuan.

Segidan. Joku-poteoa.

21:00. Zahagi sagardoa eta argazki muntaiaaren emanaldia.

23:00. Kupela taldearekin dantzaldia.

Atsedendian. Bingoa.

ABUZTUAK 26, IGANDEA

EULIARI AGURRA

12:00. Herri kirolak plazan. Aizkoran: Ugaitz Mugertza eta Iker Vicente. Harri-jasotzen: Jokin Eizmendi.

13:30. Patata tortilla lehiaketa, Larrunarri pilotalekuan.

14:30. Lehiaketaren sari banaketa.

17:30. Herriko gaztetxoaren musika eta dantza emanaldia.

20:30. Sagardo dastaketa plazan.

23:30. Fan&Go taldearekin erromeria.

00:00. Euliaren hileta (lutoa ez ahaztu).

Segidan. Txekorraren zozketa eta azken bingoa.

BEARTZANA
J A I E T E X E A

San Bartolome kalea, 8 • Amezketa
Tlfnoa: 943 650 695 www.beartzana.com



BERROBIKO FESTAK

NAHI ADINA JOLAS ETA FESTA EGITEKO PREST

Abuztuaren 28an ospatzen da San Agustin eguna; santu honi dagozkien festak, eskualdean behintzat, Berrobin soilik ospatzen dituzte. Hala ere, azkenerako utzi dute egun handirako ospakizuna, eta jaiak, 24an hasiko dira.



Iaz, XII. Gazteen Trikitilari Txapelketan, Joseba Izagirre eta Sara Iriarte izan ziren garaile. ANE URKOLA

Gurpil gainean abiatuko dira aurtengo San Agustin jaiak; bai, gurpil borobilen gainean, bizikletaz. Hala-axe azaldu dute Berrobiko jai batzordeko kideek. Izan ere, ibilaldia antolatuko dute, 10 urtetik gorako herritarrentzat. «Urteko ekitaldirik ederrenetakoa» bezala izendatzen dute beraiek. Azken hilabeteetan, herriko elkarte desberdinek egindako ekarpen eta ekintzetaz gozatu ahalko dute bertakoek, baita kanpotik joaten direnek ere.

Txirindulari bezala ibiltzeaz gainera, maldan behera jausiko den haizezko bola erraldoian ere sartuko da

gehiagorako ausartzen den inor. Hala ere, batzordetik aipatu duten bezala, «ausardia baino, zuhurtzia gehiago beharko du beste zenbaitek; egunetako ibilbide luzea izango dutelako festek». Hori dela eta, abuztuko azken ostiraletik hasi eta San Agustin egunera bitarteko epea, gorriz markatzeko eskatzen diete berrobitar guztiei.

Aurten, 18:30ean botako dute etxafuegoa Ekintza guraso elkarte kideek, eta ohiko egitaraua mantenduko dute lehen egunerako. Astebururako indarrak gordetze aldera, ez dituzte ekintza asko sartu festen lehen ordue tarako.

Asteburua, berriz, bete-betea etorriko da. Larunbata, batez ere, haurrentzako prestatu dute, eta goizez, mila eta bat jolas egiteko aukera izango dute etxeko txikiak. Horiez gain, nahi duenak, bazkaltzeko aukera izango du Begi-Urdin Gaztegunean, non freskagarriak eta izozkiak doan eskuratu ahalko diren. Kuadrillek, berriz, paella lehiaketan parte hartu ahalko dute, eta ondoren, bazkaria egingo dute guztiek elkarrekin. Bide-Ona elkarteak, bestetik, bazkari ederra das-tatu ahalko da, bertsoz alaiturik. Arratsaldean, puzgarrien txanda iritsiko da, eta DJ-ek emango diete amaiera egunari. Jolasak, ordea, ez du etenik izango, eta gauerdian, moztarro lehiaketako ideia originalenak ikusteko aukera izango da, ausartenak zezen mekanikora igoko direlarik.

Igandean, bestalde, atsedean hartzeko eguna izango dute herritarrek. Goizeko mezaren eta eguerdiko herri kirol saioaren ondoren, bazkaltzeko unea helduko da. Bazkal ostean, berriz, Mikel Markezen kontzertua entzuteko aukera izango da, eta gauean, Erromerian taldea ariko da bertakoak dantzan jartzeko ahaleginetan.

Astegunetan ere bai

Herriko festak asteburuko kontuak zirela esan zuenak, asko zuen okerretik. Egia da, noski, astegunetan baino jende gehiago bildu ohi dela jaiegunetan, baina, Berrobin ez dute horretarako beldurrik. Horregatik, aurtengo festetan, astelehena ere jardueraz lepo bete dute, eta San Agustin bezpera, hortaz, indartsua izango da. Goizean, haurrek izango dute protagonismo handiena, buruhandi, apar festa eta bestelako jolasei esker. Balkoi eta leiho ederrenen lehiaketako sariak ere banatuko dituzte, eta helduen pilota partidak ikusi eta mexikar doinuekin dantzan aritu aurretik, ikusgarritasuna gailenduko da arratseko ekintzetan.

Aurtengoz, San Agustin eguna ez dute besteetan bezain bete antolatuko, nahiz eta festarako ez den aitzakiarik faltako. Haurren dantzaldiak eta trikiti txapelketak tradizioari eutsiko diote, eta sagardo dastaketa eta gero, zahagi ardoa egingo dute, zuzeneko musikak girotuta, eta nahi duenak afaria etxetik eraman ahalko duelarik.


BERROBIKO FESTAK

ABUZTUAK 24, OSTIRALA

- 10:00.** Mendi ibilaldia bizikletaz.
11:00. Altxorraren bila.
18:30. Txupinazoa, Ekintza guraso elkartearen eskutik.
18:45. Buruhandiak.
20:00. Pintxo-pote herrikoia txosnan, okindegian eta Iriarte jatetxean.
21:00. Herri afaria eskolako estalpean.
00:30. Oxabi musika taldea.

ABUZTUAK 25, LARUNBATA

- 10:00.** Tirolina eta zintzilik ibiltzeko abentura-jarduerak frontoian.
13:30. Begi-Urdin Gaztegunea zabalik egongo da 12-18 urte bitartekoek euren bazkaria bertan egiteko.
14:00. Paella lehiaketa eta kuadrillen arteko bazkaria. Sagardoa, ura eta ardoa doan.
Bitartean. Bide-Ona elkartean bertso-bazkaria.
16:00. Martiziano berdean saltoka.
16:15. Espaziontzi puzgarri mugikorak.
16:30. Zorball: Haizezko bola erraldoiak.
17:30. DJ Porruren emanaldia.
19:00. Sardinak parrillan erreta jateko aukera, txosnan.
00:00. DJ Josu Rodriguez.
01:00. Bakeroen moztzorro lehiaketa eta rodeoak zezen mekanikoan.
Ondoren. Zoom-Zumba! saioa Maite Agirrek zuzenduta.



ABUZTUAK 26, IGANDEA

- 11:00.** Meza.
12:00. Herri kirol saioa. Aizkoran: Donato Larretxea, Gari Larretxea, Nerea Sorondo eta Itxaso Onsalo. Altuerako aizkoran: Patxi Larretxea.
Harri-jasotzen: Xabier Ariztegi.
18:30. Mikel Markezen kontzertua.
21:00. Eromerian musika taldea.

ABUZTUAK 27, ASTELEHENA

- 10:30.** Buruhandiak.
11:00. Haur jolasak.
11:30. Meza.
12:15. Apar festa.
12:30. Toka txapelketa herrikoia.
13:00. Erretirodunentzat piskolabisa, bingoa, dantzaldia eta opari banaketa.
14:30. Lorez lore, zenbat kolore lehiaketako sari banaketa.
16:00. Sagardotegi puzgarria umeentzat.

- 16:15.** Berrobiko Pintto txakurraren eta idi parearen gainetik jauzika.
16:30. Wipe-out pilotak.
17:00. Zaldi ibilaldiak beheko bidean.
17:30. Haur eta gaztetxoentzako otordua.
22:00. Helduen pilota partidak: Alberdi/Eloa eta Zubiria-Altuna/Urbietia-Telletxea.
23:30. Dantzaldia, Puro Relajo mariatxi taldearen eskutik.

ABUZTUAK 28, ASTEARTEA

- SAN AGUSTIN EGUNA
11:00. Meza.
11:30. Haurrek agurra dantzatuko dute.
12:00. Trikiti txapelketa.
18:00. Sagardo dastatzea, Izer eta Alabier trikitilariak alaiturik.
21:00. Zahagi ardoa izango da, eta Hugo Silveiraren emanaldi akustikoak giroa du gaua.

%
des
kon
tua
30
EGUZKITAKO
BETAURREKOEN
bilduma BERRI
GUZTIETAN

www.multipopticasgipuzkoa.com



Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Eibar • Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia
Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezin da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

San Frantzisko, 23 • Tel.: 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

Gonbidatu zure ingurukoak gure dantzara. Gonbidatu Atarikide egitera.

Ez da harpidetza kanpaina soila. Ez da sostengu ekonomikoa bilatzeko saiakera. Edo ez behintzat hori bakarrik; egia da, Atarikide gehiago behar ditugula eta erronka berriei aurre egiteko baliabideen premia dugula; baina hori baino gehiago da kanpaina: TOLOSALDEKO ATARIA-k eskualdean duen oinarri soziala zabaltzeko urratsa eman nahi du.

Eta pauso hori egiten duzunean izango gara.



ataria.eus/harpidetza
943 65 56 95
San Esteban, 20. Tolosa.



UZTAILEKO ETA ABUZTUKO AGENDA

FESTEZ APARTEKO MENU DASTAGARRIA

Uztaila amaieran eta abuztu osoan zehar, eskualdeko 16 herritan jaiak ospatzen dituzten bitartean, zenbait txokotan, plan alternatiboak egiteko aukera izaten da.



GAU GIRO PROIEKTUAREN BARRUAN, HIRU IKUSKIZUN

Gaur, 20:00etan hasita, Tolosako Plaza Zaharrean, hiru emanaldi desberdin ikusteko aukera izango da. Batetik, dantza garaikidea komunikazio hizkuntza bezala hartuta, *Block* izeneko proiektua aurkeztuko dute Leire Otamendik eta Amaia Elizaranek. Bestetik, Haatik dantza konpainiako Irati Sorondo, Anne Jauregi, Nagore Zabala eta Amaïur Luluagak emakumeen eskubideen aldeko borroka irudikatuko dute gorputz mugimenduaren bitartez, *Lau eme* izeneko proiektuan. Azkenik, musikak eta dantzak bat eginez, *Pool* pieza joko du Xabier Zeberio musikariak, Amaia Elizaran dantzariaren laguntzaz, inprobisazioen bitartez hizkuntza koreografiko bat bilatu nahian. **ATARIA**



OPORRIK EZ 10. URTEMUGAN

Tolosa Kantari egitasmoak, herritarrek bultzatu nahi ditu, uztailleko nahiz abuztuko azken larunbatetan ere, betiko kantak abestera. Udako lehen saioa ekainean egin bazuten ere, ez dute atsedenik hartuko, eta bihar (uztailak 28), eta abuztuaren 25ean egingo dituzte ohiko kalejirak, Maria Luisa Agirre doktorea kaletik abiatuta. Biharkoan, gainera, herriko txistulariak izango dituzte laguntzaile. **MIKEL IRAOLA**

TOLOSA

UZTAILAK 27, OSTIRALA

17:30–20:30. Renaud Harrison-en, Art Fix (Kanada), "Hirian Hazi" erakusketa kolektiboa ikusgai, Gko Galleryn.

ABUZTUAK 7, ASTEARTEA

20:00. Klaus Van Den Kerhoff alemaniarren organo kontzertua, Andra Maria parrokian.

ABUZTUAK 20, ASTELEHENA

18:00–20:30. Hileroako odol-ateratzea Kultur Etxeko Topagunea gelan. Txandarako zenbakiak Kultur Etxeko sarreran uzten dira egunean bertan.

IRAILAREN 6RA BITARTE

10:00–13:00/16:00–19:00. Sevillako bi txotxongilo taldek, *Buho eta Maravillas*, 2007. urtean egin zuten bat. Topicen, beraien 30 urteko ibilbidearen inguruko erakusketa zabaldu dute.

UR MARA MUSEOA (ALKIZA)

UZTAILAK 28, LARUNBATA

18:00. Koldobika Jauregiren Aizkora eta arbola erakusketa.

ABUZTUAK 6-11

10:00–13:00. Xilografia tailerra Koldobika Jauregiren gidaritzapean, eta Eskulan paperen lanketa Juan Barbéren eskutik.

ABUZTUAK 19, IGANDEA

12:00. *Un point pour être une phrase recroquevillée sur elle-même* erakusketa eta Hillbilly Jokers taldearen kontzertua.

IRAILAK 1, LARUNBATA

20:00. Sara Morante ilustratzailearen erakusketa eta SK efimeroak taldearen dantza emanaldia.

UZTAILEKO ETA ABUZTUKO AGENDA

TXINDOKIKOITZALA (ABALTZISKETA)

UZTAILAK 27, OSTIRALA

22:00. Ilbete gaua. Ibilbide tematikoa sei urtetik gorakoentzat: Mitologiazko kondairak eta abentura parkea. Prezioa: Ibilbide tematikoak 5 euro; abentura parkeak, ohiko prezioak.

ABUZTUAK 28, LARUNBATA

10:00. Maila errazeko arrolla jaitiera, zortzi urtetik gorakoentzat. Prezioa: 40 euro.

ABUZTUAK 4, LARUNBATA

10:30. Aralarreko artzainaren bordara bisita, bertako bizitza ezagutzeko sei urtetik gorakoentzat. Tartean, gazta dastaketa. Prezioa: 30 euro.

ABUZTUAK 11, LARUNBATA

10:00. Maila errazeko arrolla jaitiera, zortzi urtetik gorakoentzat. Prezioa: 40 euro.


ABUZTUAK 18, LARUNBATA

10:30 eta 16:30. Larte ezagutzako bisita gidatua eta gazta dastaketa, lau urtetik gorakoentzat. Prezioa: 12 euro.

ABUZTUAK 18, LARUNBATA


10:30. Eskalada ikastaroa Zazpiburin, sei urtetik gorakoentzat. Prezioa: 25 euro.
22:00. Ilbete gaua. Ibilbide tematikoa sei urtetik gorakoentzat: Mitologiazko kondairak eta abentura parkea. Prezioa: Ibilbide tematikoak 5 euro; abentura parkeak, ohiko prezioak.

**Ekitaldi guztiak euskaraz edota gaztelaraz egin ahalko dira. Horietako bakoitzean, talde mugatuak izango dira.*



SEI EGUNETARAKO, BENASQUE INGURURA

Alpino Uzturre mendi elkarreak irteera antolatu du Benasquera, abuztuaren 20tik 25era bitarte. Ruta 10 lagos txangoaren hiru etapak osatu eta Aragüells (3.048 metro) mendia igotzeko asmoa dute. Irteeraren prezioa 172 eurokoa da. **ATARIA**



FESTETATIK AT, PIRINIOETARA IRTEERA

Hilabetero egiten duen bezala, abuztuan ere, Oargi mendi elkarreak irteera antolatu du. Kasu honetan, Frantziako hegoaldean, hain justu, Pirinioetan dagoen Canigó mendira (2.784 m) joango dira hilaren 11n eta itzulera 19an egingo dute. Tolosako mendi elkarreak aurrerago helaraziko du irteerari buruzko informazio gehiago. **ATARIA**



www.zelai.es

T 943691555 • M 672712731 • Benta Aldea Industrialdea, 12. 20270. Anoeta. Gipuzkoa.

Abuztuan ere jarraitu
eskualdeko albisteak
ataria.eus-en!

Eskualdeko albiste
guztiak, argazki
galeriak, bideoak,
jai egitarauak...



tolosaldeko



ataria

www.ataria.eus • 107.6 fm



ataria
argazki lehiaketa

*Udako
argazki lehiaketa*



nekatur

www.nekatur.net

**Gozatu egonaldi paregabeaz
Nekaturreko ostatuetan!**

'Opari Bonu Orlegia'

Bi pertsonarentzako bi gaueko
egonaldia:

logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
943 32 70 90

Epaimahaiaren saria



Bi Mahala saski zozketan parte
hartzten duten Atarikideen artean

Mahala baserria • 20491 Leaburu • 943 67 07 24
www.mahalanaturala.com

atarikide-en saria

bidebide

Lau pertsonarentzako otordu bat
Bide Bide jatetxean

Euskal Herria plaza, 1 • Tolosa • 943 23 11 00
www.bidebide.eus

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria